**La cooperación descentralizada: ayuda al desarrollo y cooperación internacional de las Comunidades Autónomas, Provincias y Ayuntamientos,** por Adolfo Rodríguez Gil 91

**Infancia en situación de riesgo: Sistemas de atención en Santiago de Chile,** por Bernardo Ortín Pérez 117

**EXPERIENCIAS**

**Trabajo con la infancia en cooperación al desarrollo,** por Elena Barinaga Diego 127

**Proyecto sanitario integral del municipio de Viana,** por Teresa Seisdedos Porte 133

**Las «Yachay Huasi», una educación desde el campo y para el campo,** por Santiago Martínez Orozco 145

**DERECHOS DE LA INFANCIA**

**La protección constitucional del menor y el Defensor del Pueblo,** por Margarita Retuerto Baudes 153

**COORDINACION**

- AGENCIA ESPAÑOLA DE COOPERACION INTERNACIONAL (AECI)
  Ministerio de Asuntos Exteriores
- CENTRO DE ESTUDIOS DEL MENOR (CEM)
  Dirección General de Protección Jurídica del Menor
  Ministerio de Asuntos Sociales

**Nº 19 1993**

# ISILIK

## AURKIBIDEA

EDITORIALA ....................................4

QUEBEC: EBALUAKETA GARDENEKO LURRALDEA
(Nicole Temporal-Marty) ....................................5

EUSKAL HERRIA ETA ELEANIZTASUNA
(Josep Maria Artigalekin elkarrizketa) ....................................8

FRANTSES MURGILKETAREN HISTORIA ARRAKASTATSUA
Fred Genesse ....................................11

MURGILTZEKO PROGRAMAK:
METODOLOGIA ETA PRAKTIKA
(Josu Sierra) ....................................15

**GEHIGARRIA:**
KULTUR ETA HIZKUNTZA DESBERDINTASUNAK HEZIKETAN
(Fred Genesse) ....................................25

HIZKUNTZA LEHEN HEZKUNTZA
(Itziar Elorza) ....................................41

ELEANIZTASUNAREN ALDEKO APOSTUA ORDIZIKO JAKINTZA IKASTOLAN
(Manu Olano) ....................................44

ANTZUOLAKO HERRI ESKOLAKO ESPERIENTZIA
(Lourdes Etxezarreta) ....................................47

ARABAKO EUSKAL IRAKASKUNTZARAKO KOORDINADORA
(Blanka Martinez de San Vicente) ....................................54

PARAPSIKOLOGIA GAIAK IKASTETXEETAN;
ZERGAITIK? ZERTARAKO?
(Luis M. Barandiaran) ....................................56

AZKEN BERRIAK ....................................58

**Nº 17-18 • 1993ko Azaroa**

# PERSPECTIVA ESCOLAR

**Editorial** 1

**Monogràfic:**
**Barcelona**

El medi natural de Barcelona. *Margarida Parés i Rifà* 2
Descobrim Barcelona. *Núria Solé i Calvet, Josep M. Font i Font* 13
La imatge de Barcelona: els mapes mentals com a forma de detecció d'idees prèvies. *Araceli Vilarrasa, Antònia Hernández, Esteve Barandica* 22
Les modificacions urbanístiques a Barcelona: centralització o descentralització d'àrees. Influència de l'opció actual. *Manuel Ribas i Piera* 31
La transformació metropolitana de Barcelona: estructura interna i projecció exterior. *Abel Albet i Mas, Rosa Ascon i Borràs* 38
Classes i grups socials a la Barcelona d'avui. *Cristina Sánchez i Miret* 48

**Escola.**
***Aplicant la Reforma:***
L'avaluació a la Secundària obligatòria: instrument per a canviar el currículum. *Maria Masip i Utset* 54

**Escola i societat.**
***Educació pluricultural:***
Escolarització d'alumnes magribins (llengua i cultura). *M. Jesús Delgado* 61
***La mestra i el mestre:***
Reflexions sobre la implantació de l'Educació física a l'Escola Pública de Catalunya i el paper de l'especialista. *Jaume Bantulà* 69

**Novetats bibliogràfiques** 73
**Textos legals** 80

**Nº 179 • 1993ko Azaroa**

# PERSPECTIVA ESCOLAR

**Editorial:**
Els nens i nenes de Sarajevo 1

**Monogràfic:**
**Llegir i viure**

Llegir i viure. *Enric Cassany* 2
Respostes a quatre interrogants de "Perspectiva Escolar". *Miquel Desclot* 9
El plaer de llegir i les lectures obligatòries a l'ensenyament secundari. *Pere Maragall i Mira* 15
Confessions d'una lectora recalcitrant. *Montserrat Galícia* 20
El gronxar de la vida m'ha portat al llibre. *Sebastià Fàbregas* 27
Bibliografia complementària. *Biblioteca Rosa Sensat* 35

**Escola.**
***Didàctica:***
Al parvulari, llegim imatges. *M. Cèlia Romea Castro* 37
***Aplicant la Reforma:***
Aprendre llengües estrangeres al Cicle Mitjà. *Maria José Lobo* 46
***La mestra i el mestre:***
Com s'escriu? *Carme Arrufat i Dalmau* 50

**Escola i societat.**
***Televisió:***
La programació infantil i juvenil. *Paloma de Pablo* 55
***Entrevista:***
Triar no és trair. Entrevista a Emili Boix. *Jaume Cela* 61
**Novetats bibliogràfiques.**
Una proposta interessant. *Jaume Cela* 67
Psicologia evolutiva. *Aurora Leal* 68
Altres novetats. *Biblioteca Rosa Sensat* 70
**Novetats àudio-visuals.**
Vídeos per al parvulari. *Revista Infància* 73
**Textos legals.** 76

Nº 180 • 1993ko Abendua

**Editorial:**

**Monogràfic:**
**Deures sí, deures no**

Presentació. *Josep Fernández Quiles* 2
Els deures escolars. *Eulàlia Bota i Maite Subirà* 4
Els treballs complementaris de casa. *Claustre E. P. Dr. Estalella Graells* 11
Càstigs i plaers amb propòsits educatius. *Jaume Funes* 15
Els deures viscuts per la família. *Ignasi Riera* 22
Situem-nos. *Toni Creus* 27
Els deures: què en pensen els alumnes? *Josep Roma i Vila* 31
Bibliografia complementària. *Biblioteca Rosa Sensat* 35

**Escola.**
***Noves tecnologies:***
Els mitjans informàtics amb els més petits. *Rita Armejach* 37
***Experiències escolars:***
Experiències sobre Joan Miró. *S. Boluda i J. L. Simón* 43
Jo participo, tu participes... Nosaltres participem. *Salvador Peguero* 51

**Escola i societat.**
El Parc Zoològic de Barcelona i el coneixement de la biologia dels animals. *Rosario Nos* 55
***La mestra i el mestre:***
Ha començat el Primer Congrés de la Renovació Pedagògica. *Joan Domènech* 61

**Novetats bibliogràfiques.** 64
**Per als nois i noies:**
***Teatre:***
Psssh... I ara a l'escola. *Jaume Cela* 66
**Textos legals.** 68
**Cartes al director.** 70

Nº 181 • 1994ko Urtarrila

**Editorial:**
Del telèfon a la tutoria 1

**Monogràfic:**
**Les Ciències Socials. Us pas endavant**

La didàctica de les Ciències Socials: estat de la qüestió. *Pilar Benejam* 2
Per què i què ensenyar i aprendre de Ciències Social a finals del segle XX? *Joan Pagès* 9
L'estudi del medi. *Roser Batllori* 21
Aprendre procediments: un repte. *Cristòfol-A. Trepat* 27
L'elaboració del Projecte Currícular en l'àrea de Ciències Socials. *Agustí Alcoberro i Pericay* 35
Bibliografia complementària. *Biblioteca Rosa Sensat* 40

**Escola.**
***Aplicant la Reforma:***
La Reforma a l'escola rural. *Llorenç Planes i Montse Castanys* 45
***Experiències escolars:***
Acolliment de deu nens saharians. *Dolors Prenafeta i Sebastià Serracarabasa* 51

**Escola i Societat.**
***Política lingüística:***
Cinc anys de català a les escoles de la franja oriental de l'Aragó: incidència en el Baix Cinca. *Angel Huguet i Rosa M. Jové* 55
***Educació física:***
La pràctica esportiva entre els sis i dotze anys, un debat constant. *Francesc Fontdevila* 60
***La mestra i el mestre:***
En la mort de Loris Malaguzzi. 69

**Premis:**
"Educación y sociedad" 1993. Premi Rosa Sensat de Pedagogia 1993. 74
**Novetats bibliogràfiques.** *Biblioteca Rosa Sensat* 76
**Textos legals.** 78

Nº 182 • 1994ko Otsaila

# SIGNOS

Nº 11
1994ko
Urtarrila-Martxoa

## SUMARIO

3
*Editorial*

4
JOSEP M. MASJOAN
*Los profesores de educación secundaria ante la reforma*

12
JOSÉ LUIS ATIENZA
*Materiales curriculares ¿para qué?*

22
JESÚS TUSÓN
*Prejuicios lingüísticos y enseñanza*

30
BENIGNO DELMIRO COTO
*Los talleres literarios como alternativa didáctica*

46
JOSEP MARÍA COTS
*Un enfoque socio-pragmático en la enseñanza de una lengua extranjera*

52
CLAUDI ALSINA
*La educación matemática, hoy*

56
*Libros*

# artikulu aipagarriak

**BATZU: «Vivre la couleur au cycle 1», Ecole Maternelle 3, novembre 1993.**

Artikulu honetan 3 urteko haurren gela batean kolorearen inguruan egindako lan aberatsa kontatzen zaigu.

Autoreek erreflexio teoriko baten ondoren, gelan egindako ekintza ezberdinak, landutako aspektu eta gaitasunak eta espazioen antolaketaren berri azaltzen digute.

Lan interesgarria eta praktikoa.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**BATZU: «Aménagement de l'espace. La cour de récréation». L'Ecole Maternelle 5, janvier 1994.**

Nola errespeta ditzakegu haurren erritmoak, beraien beharrak, espazioak prestatuta ez badaude? Ezin da denbora antolaketarik eman, haurrek bizi duten espazioa antolatuta ez badago.

Erreflexio honetan oinarriturik, artikulu honetako autoreek, Haur Eskolan jolasteko espazioaren antolaketari buruzko proposamenak egiten dituzte. Aipatzen diren lege araudiak frantsesak izan arren, lana interesgarria iruditzen zaigu, gure eskoletan dauden espazioekin konparatzeko baliogarria izan daitekeelako.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**BELTRAN, José : «Pensamiento débil y reforma educativa: la racionalidad bajo el signo de la apariencias», Comunicación, Lenguaje y Educación 19-21, 1994.**

O.C.D-an proposatzen diren iturburuek (soziologikoa,epistemologikoa eta psikologikoa) eta bakoitzatik abiatuz erantzun daitezkeen galderak ( ze erakutsi?, noiz?, nola?) ez diote erantzuten hezkuntzan planteatu beharreko galdera garrantzitsuenari: zertarako edo zergatik erakutsi. Hau da, irakaskuntzaren azken helburuak erantzungabe uzten dituztela azpimarratzen du autoreak eta hutsune honek erakusten digula gizarteak eskolari eman nahi dion paper ahula.

Problematika honen aurrean , erreformak ematen duen markoa aporbetxatuz, irakaskuntzaren helburuei buruzko erreflexioa proposatzen du autoreak: hausnarketa honek indartuko du eskolaren papera gizartean.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**BLUZAT, F.: «La mitad de los refugiados del mundo», Infancia y Sociedad 19, 1993.**

Artikulu honek, haur errefuxiatuek dituzten arazorik garrantzitsuenak azaltzen ditu.

Bakarrik mugitu edo bizi diren haur taldeen egoerak azpimarratzen dira, eta ACNUR-ek aholku batzuk ematen ditu haur errefuxiatuen nazioarteko babesa, ziurtasun fisikoa eta ongizate eta garapen psikosoziala hobetzeko.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**Cuadernos de Pedagogía 220, diciembre 1990.**

Irakurketa sosegatua eskatzen duen irakasleei buruzko monografiko hau interesgarritzat jotzen dugu. Lan honek gaur egungo egoeraz, prestakuntzaren beharraz eta irakaslegoaren funtzioaz ikuspegi globala ematen digu.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**Cuadernos de Pedagogía 223, marzo 1994**

Aldizkari hau, Cesar Collek koordinatu duena, Proiektu Curricularrei buruzkoa da.

Sarreran Cesar Coll eta Elena Martinek, Erreformaren aplikazioan Ikastetxeko Proiektu Curricularrak duen garrantzia azpimarratu eta gaur egun nola eta non dagoen gaia azaltzen dute: zailtasunak, lorpenak, etorkizunean hartu beharreko neurriak...

Gainerako artikuluak, batzuk interes haundikoak direnak, elaborazio prozesuari buruzkoak, Proiektuaren osagarriei buruzkoak eta adibideei buruzkoak dira.

Monografiko hau gaurkoa eta kalitate handikoa dela uste dugu.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**FONAYET, Monserrat; VALLS, Enric: «¿Una estrategia didáctica particular en la enseñanza de los contenidos procedimentales?». Aula 22, 1994ko urtarrila.**

Eduki multzo bakoitza lantzeko estrategia didaktiko desberdinak erabili behar direla azpimarratzen dute autoreek

artikulu honetan prozeduren lanketarekin lotutako aktibitateak aztertzen direlarik.

Proposatutako aktibitateak hiru filtroetatik pasatu behar dira autoreen ustez,artikuloan zehar filtro hauek aztertzen direlarik:

. Aprendizaiari buruzko ikuspegia.

. Prozeduren aprendizai esanguratsua

. Prozeduren aprendizaiaren dimentsio espezifikoak:
  . Aktuazioari buruzko informazioak
  . Prozedurak inplikatzen dituen ekintzak
  . Prozeduraren balioa

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**GENESSE, Fred: «Kultur eta hizkuntza desberdintasunak heziketan», Isilik 17-18, 1993ko azaroa.**

Hizkuntzaren ikaste prozesuan faktore soziokulturalek duten eragina azpimarratzen du autoreak: eskolara joan aurretik hizkuntzaren ikaste prozesua garapen kulturalarekin erabat lotuta doa, eskolan lotura hauek sakondu eta hedatzen direlarik.

Haurra lengoiaren bidez sozializatzen da eta ikasitako modu sozialek eta kulturalek bideratzen dute hizkuntzaren erabilera.

Eskolako hizkuntza erabilpen-ereduak talde arrakastatsuen arau soziokulturalak azpimarratzen ditu. Horregatik, hizkuntza eta kultura desberdinetako ikasleek aurki dezaketen oztopo garrantzitsu bat hizkuntza eta kulturarekiko ezagupen eta ulermen falta izan daiteke;ondorioz, oso garrantzitsua da irakasleak ikasleen kultura eta eskolara etorri aurretik eduki dituzten sozializatzeko esperientziak ongi ezagutzea.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**MOLINA, P.: «El adulto y la conflictividad de los pequeños», Infancia 23, enero-febrero 1994.**

Gatazken gaia konplexua da.

Artikulu honetan, haurren arteko erlazioetan ematen diren inguruko baldintzen garrantzia eta helduek egoera gatazkatsuetan parte hartzean izan behar dituzten helburuak azpimarratzen da.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**NUÑEZ, P.: «Biblioteca escolar i interculturalitat», Guix 196, febrer 1994.**

Artikulu hau aipatzen dugu, gure gizarte gero eta pluralago honetan, daukan gaurkotasunagatik, izan ere kultura aniztasunak gatazka sor baitezake.

Artikulua, eskolako bibliotekak edo gelako bibliotekak, kultura anizkizna eta elkarbizitza eta errespetu hezkuntza gaiak aztertzeko dituen ahalmenetan zentratzen da (liburuak, artikuluak, dokumentuak, errekurtso didaktikoak...)

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**SIERRA, Josu: «Murgiltzeko programak:Metodologia eta praktika», Isilik 17-18,1993eko azaroa.**

Artikuloaren lehen zatian murgiltze programen oinarriak aztertzen ditu autoreak:

. 2.Hizkuntzan murgilketa goiztiar eta intentsiboa

. Inguru imitatibo naturalaren eraikuntza 2.hizkuntzaren ikasketa-eskurapen prozesuan.

. Hizkuntzen arteko interferentzia eta elkarlaguntza.

. Hurbilketa komunikatiboa.

Oinarri metodologiko honen inguruan sortu diren hutsuneak eta soluziobideak aztertzen dira artikuloaren 2. atalean.

3. atalean azkenik, inguru eskolarrak duen eragina azpimarratzen du autoreak eta inguru eskolarrak ezartzen dituen baldintzetatik abiatzearen beharra azpimarratzen du, murgiltze programa arrakastatsua izan nahi bada.

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

**VALLS, Enric: «La precisión de las intenciones educativas mediadas por los contenidos procedimentales», Aula 22,1994ko urtarrila**

Prozedurak garapen kognitiboarekin lotu beharra azpimarratzen du autoreak eta baita beraien aprendizai esanahikorrak eskatzen dituen baldintzak kontutan izatea; lan hauetarako oso baliagarria da aprendizai hauek helburu didaktikoekin lotzea.

Helburu didaktikoak hiru arloekin lotu daitezke:

. Lantzen ari den prozedurari buruzko ezagutzarekin

. Erabilerarekin

. Prozedura honen balioez jabetzearekin

✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧ ✧

# FAMILIA ETA ESKOLA

Haurraren garapenean, eta gero helduaren nortasunean, gurasoek eta hezitzaileek, alde batetik, eta lehenengo bizipenek eta esperientziek duten eragina, bestetik, inork ez ditu zalantzan jartzen, nahiz eta aipatu inguru hurbilak duen eragina modu desberdinetan interpretatua izan den.

Horregatik, gai hau aztertzeko aukeratu dugun bibliografian ikuspegi ezberdinak jaso nahi izan ditugu. Bibliografiaren lehenengo atalean ikaste prozesuan eta afektibitatearen garapenaren oinarrian egon daitezkeen faktore eta mekanismoen eta hauen eragina aztertzen duten zenbait autore aukeratu ditugu, azalpen hau ikuspegi desberdinetatik abiatuz egingo dutelarik: Ikuspegi soziokonstruktibistatik, psikoanalitikotik...

Bibliografiaren bigarren atalean guraso eta eskolen arteko harremanak aztertzen duten zenbait liburu aukeratu ditugu,bertan esperientzia praktikoak ere aurki daitezkeelarik .

Aldi berean, eta haur txikientzat diren giro naturalak hobeto ezagutzeko, beraien arteko loturak eta harremanak duten garrantzia aztertzeko asmoarekin, hainbat artikulu aurkezten dugu.

Artikulu batzuk ikastetxeetatik idatzitakoak dira (gurasoekin egindako esperientziak, lanak, gogoetak,...) eta beste artikulu batzuk, eskoletatik kanpo, familia-hezkuntz espazio berrietatik idatzitakoak (Bartzelonako Udaletxearen "Espai Familiar"etik).



*Catherine Dolto-Tolitch. "Esperamos un bebé". Ed. Didascalia.*

## BIBLIOGRAFIA:

**BRONFENBRENNER, U. (1987): «La ecología del desarrollo humano». Barcelona. Paidós.**

Bronfenbrennerek jorratzen dituen gaiak gure esperientzia psikologiaren bidez azaltzeko esperantza dutenei ardura sortzen dieten horiexek dira. Psikologiak itxuraz arraroak diren jokabideak «eguneroko bizimodua» izenez ezagutzen dugun kontestuarekin duten harremana norainokoa den azal diezaguke. Bronferbrenner profesoreak gure jokabidea gauzatzeko ditugun inguruneak aztertzeak daukan berebiziko garrantzia nabarmentzen du. Ingurune hori, haur txikien kasuan, familia eta haur-eskola dira. Bere ustez, egiten dugunaren azalpena pertsonen eta giroen elkarrekintzan, iraganekoan eta oraingoan, aurkitu behar dugu.

Haurrak nola garatzen diren ulertzeko, autorearen ustez, beharrezkoa da euren portaera giro naturaletan (familia eta haur-eskolan) behatzea, aspaldidik ezagutzen dituzten helduekin elkarrekintzan dihardutela .

Liburu interesgarri honetan, Bronfenbrennerek bere bi konbikzio nabarmendu nahi ditu. Hauexek dira:

1. Gizakiak edonora egokitzeko eta aldatzeko duen gaitasuna eta, halaber, bera bizitzeko eta garatzeko moduko ekologia bat sortzeko duen gaitasuna.

2. Politika ofizialak gizakiaren ongizatean eta garapenean eragiteko besteko ahalmena dauka, honen bizi-baldintzak harexek erabakitzen baititu.

Oso gai erakargarriak dakarzkigu liburu honek, hainbat gauza ulertzeko interes handikoak direnak: gure eguneroko bizimodua, harremanen garrantzia, bai guk eta bai haurrek gure nortasuna garatzeko garaian ditugun ingurune guztien garrantzia...

**DOLTO, F. (1992): "La dificultad de vivir". Barcelona. Gedisa.**

Ikuspegi psikoanalista batetik abiatuz eta eguneroko bizitzan gertatzen diren kasuen azalpena eta azterketa eginez, autoreak bi gai nagusi aztertzen ditu:

Haurrek garapen prozesuan aurkitzen dituzten oztopoak eta oztopo hauek gainditeko bideak.

Haurrek aurkitzen dituzten oztopoen aurrean gurasoek izan behar dituzten jokabideak. Gurasoei planteatzen zaizkien galderak eta gaurko bizimoduak sortzen dituen larrialdien aurrean garatu daitezkeen jokabideak, alegia.

**ROGOFF, B. (1993): "Aprendices del pensamiento. El desarrollo del pensamiento. El desarrollo cognitivo en el contexto social". Paidós. Buenos Aires.**

Teoria eta ikerketen emaitzetan oinarrituz, haurren ikaste prozesuari buruzko ikuspegi soziokonstruktibista zabaltzen eta sakontzen du autoreak. Hauek dira aprendizaia azaltzerakoan autoreak azpimarratzen dituen berezitasunak:

. Aprendizaiaren bidez den ezagutza, ikasten den testuingurutik bereiztu ezina da.

. Ikaskuntzaren xedeak inguru sozialak definitzen ditu, eta lotuta dago komunitate bakoitzeko eginkizun esaguratsuei.

. Ikasterakoan ikasleak soziokulturalki definitutako tresnen erabileraz trebatzen da.

Autoreak garatzen duen aprendizaiaren ikuspegian garrantzia handia du "partehartze gidatua-k", autoreak liburuan zehar azaltzen duelarik partehartze honen berezitasunak:

. Interakzio egoerak
. Intersubjetibitatea
. Bereganatzea
. Arduren trasferentzia
...



*Catherine Dolto-Tolitch. "Un bebé en casa". Ed. Didascalia.*

**RUTTER, M. (1990): "La deprivación materna". Madrid. Morata.**

Haurraren garapenean, faktore ezberdinen garrantzia azpimarratu da: haurraren bizitzaren lehenengo urteak, testuinguru estimulatzailea, ama eta haurren arteko harremana, etab.: baina, bestalde, inkietude edo larrialdiren bat sortu da zenbait familiarengan, galdetuz haurrarekiko urruntasuna edo amak lana egiten duelako edo haurra haurtzaindegira eramaten delako, geroko garapenerako kaltegarri izan daitekeen.

Aipatutako gaiak aztertzen ditu M. Rutterek bere liburuan. Atxekimendu edo apegoari buruzko Bowlbyren ikerketatik abiatzen da; ondoren, gai honekiko 1951tik 1980ra egindako ikerketen emaitzak aztertzen ditu.

**"La participación de los padres en los centros escolares" (1991): Madrid. Comunidad de Madrid. Consejería de Educación y Cultura.**

Liburu honek, berariaz, gai bakar bat aztertzen du: gurasoen partaidetza ikastetxeetan. Bertan hainbat gauza jasotzen dituzte egileek: gurasoen premietariko batzuk, gurasoen partaidetzarekin zerikusia duten zenbait faktore, eta eskolak arlo horretan eskain diezazkiekeen aukerak.

Bestalde, Madrideko Komunitateko Hezkuntza Sailak antolatuta, gurasoentzat egin diren zenbait esperientzia egiteko hartu den hezketa-eredua ere azaltzen da.

**CATALDO, Ch. (1991): «Aprendiendo a ser padres. Conceptos y contenidos para el diseño de programas de formación de padres». Madrid. Visor.**

Testu honek gurasoen prestakuntza jorratzen du eta hainbat kontestutan gara daitekeen prozesua dela azaltzen du. Bestalde, nabarmendu egiten du ondo diseinatuta eta guraso eta haurren beharrizanak eta nahiak kontuan hartuta egiten diren egitasmoek duten balioa.

Liburuak bi sail nagusi ditu:

1. Familia (egoera, arazoak...) eta gurasoen prestakuntza-prozesua.
2. Gurasoen prestakuntzarako egitasmoen diseinua eta edukinak.

Testu baliagarria izan daiteke familiekin eta haur txikiekin diharduten hezitzaileentzat, bai programa formalen zuzendari denarentzat, eta baita, familiarekin harremanak dituelako, gurasoei informazio bereziren bat eman behar dienentzat ere.

**GARCIA, P. HERRERO, C. BLAZQUEZ, E (1991): «Los padres en la comunidad educativa». Madrid. Castalia / MEC.**

Lan hau egin duten emakumeek, hizkera herritar eta zuzena erabiliz, begiratu bat ematen diete, euren ustez, haurren hezkuntza prozesuaren garapenean eragiten duten gaiei: indarrean dagoen legeria, irakasle-gurasoen arteko harremana finkatzeko behar diren betebeharrak, harreman horretan sor daitezkeen gatazkak, gatazka horien irtenbideei... Liburuak hausnarketan oinarrituriko laguntza bat izan nahi du gurasoek ikastetxeetan parte har dezaten. Helburu hori lortzeko, egileek zenbait irizpide edo gako ematen dituzte gurasoen hezkuntza-jarduna gero eta tinkoagoa izan dadin eta ahalik eta fruiturik onenak eman ditzan ikastetxeetan.

**QUINTANA, J.M. (koord) (1993): «Pedagogia familiar». Madrid. Narcea.**

Liburu honetan familiak daukan eginkizun edukatiboan sortzen diren arazoak gainditzen laguntzeko diskurtso pedagogikoa gorpuztu nahi da. Bertan, besteak beste, honako gai hauek jorratzen dira: familia sozializazio-gunea den aldetik, hezkuntza estiloak, hezkuntzako irizpideak, baloredun hezkuntza, famili-aholkularitza, familiaren eta eskolaren arteko harremana, gurasoen eskola.

Liburua teoriaren eta praktikaren tartean, erdibidean, geratzen da: famili-aholkularientzat ezezik gurasoentzat ere baliagarri izan nahi du.

**TSCHORNE, P. VILLALTA, M. TORRENTE, M. (1992-3. ed.): «Padres y madres en la escuela. Una guía para la participación». Barcelona. Paidós.**

Liburu honen helburua eskolan eta haurren hezkuntzan parte hartu nahi duten gurasoei lan praktiko bat eskaintzea da.

Liburuaren lehen atalean egileek euren ikuspuntua ematen dute ikastetxeaz, bere egituraz, funtzionamenduaz, hezkuntza proiektuaz...

Bigarren atalean, xehetasunez aztertzen dira Gurasoen Elkartearen funtzioak eta ekintzak eta, halaber, gurasoen partaidetzak eskolari dakarzkion ondorioak.

# BADUGU SEME/ALABA BAT"

AMA ETA SEME-ALABENTZAKO PROGRAMA,
BARTZELONAKO HAINBAT BARRUTITAN PRAKTIKAN JARRIA.

*Bartzelonako Udaletxea. Hezkuntza Saila. Bernard van Leer Fundazioa.*
***Mª Teresa Majem,** haur-hezkuntzako irakasle espezializatua eta programaren koordinatzailea.*

**«Badugu seme/alaba bat»**
**Ama-seme edo ama-alabentzako programa.**
**Bartzelonako Udaletxeko Hezkuntza Saila.**

## 1. SARRERA

«Badugu seme/alaba bat» programa bat da, haur jaio berria duten amei zuzendua. Programa honen asmoa amentzako elkarlaguntza taldeak sortzea da, euren haurtxoen lehen urtean, hezkuntzarako gune bat eskainiz, non amek elkarrekin bizi ahal izango baitute seme-alabaren familiaratzeak dakarren guztia eta non gurasoek euren haurtxoak hazi eta hezteko gai ikusiko baitute euren burua.

1987an, Bartzelonako Udaletxeko Hezkuntza Sailak bultzatuta, abian jarri zen lehen taldea *Canyelles* auzoan, *Nou Barris* barrutian. Apurka-apurka talde gehiago eratu dira hiri osoko hainbat auzotan (Barceloneta, Ciutat Vella, Zona Franca, Bon Pastor), auzo bakoitzaren gainetik dagoen barrutiaren laguntzaz.

Auzo hauetako bakoitzak bere berezitasunak ditu bai eraketa eta arazo sozialei dagokienez, baita inmigrazio eta marjinazio-integrazioari dagokionez ere.



«Zoragarria litzateke ama bakoitzak bere inguruan bizi den (neska)lagun bat izatea eta, amak haurra erditurikoan, lagunak amatasunaren lehen urratsak ematen laguntzea» (Irene Willis, Jaiotza Ondorengo Batzordearen sortzaile eta bultzailea, Britainia Handia).

Esaldi horixe izan da programa honen abiapuntua. Izan ere, egunean-egunean hobeto jabetzen gara hiri handi batean bizitzeak askotan isolamendua eta bakardadea dakartzala eta horrek eragin handiagoa duela emakumearengan, emakumea baita, gehienetan, seme-alabaren hazkuntza eta hezkuntzaren ardura hartzen duena, askotan, esperientzia gutxirekin eta laguntzarik eta aurretiazko informaziorik gabe.

Gure asmoa emakume hauei *-ama berriak-* harrera ona egitea eta eroso, inhibiziorik gabe, sentiaraztea da. Horretarako, esperientzien trukea eta elkarlaguntza bultzatuko duen giroa sortzen saiatzen gara. Eurek badakite haur baten etorrerak aldaketa handiak dakartzala familiara, bai alderdi pertsonalean eta bai harremanetan eta antolakundean; eta, halaber, poz eta amets handiak.

## 2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa honen asmoa gune egoki eta lasaia sortzea da, giro atsegin eta bero batean. Amak euren haurtxoekin etortzen dira bertara elkarren berri emateko eta haurraren bizitzako lehen urtean izaten dituzten antzemateak, pozak, segurtasunik ezak, dudak, ametsak eta esperantzak elkarri kontatzeko, profesionalen laguntzaz.

Gune hau egokia eta txeratsua da haurtxoentzat ere. Gainera, egunik egun egiten dituzten aurrerapausu garrantzitsuak behatzeko aukera ematen du eta umeen lehen harreman sozialak bideratzen ditu.

Euren nahi eta iradokizunak kontuan hartuta, aniztasunarekiko begirunea aintzat hartuta eta gizabanakoaren izaera eta bakoitzaren dinamika onartuta, amei eroso eta inhibiziorik gabe sentiarazteko moduko dinamika bat bideratzea da kontua...

Eta esperientzien hartu-emana bultzatzea, segurtasuna ematea, informazioa ematea... haurraren etorreraz gozatzeko eta haurra hobeto hazi dadin...

Eta amei hezkuntza arloko elementuak eskaintzea, haurren garapena eta aurrerapausuak era sano eta lasai batean bizi ditzaten.

Horretarako, laguntza profesionala ematen zaie eztabaidagarria zer den eta frogatua zer den, oinarrizkoa zer den eta apaingarria zer den bereizten ikasten laguntzeko, euren jokabideetan konfidantza sortzeko.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

Halaber, gure asmoa, ahal den neurrian, bikotea inplikatzea da, amatasun/aitatasunaren esperientzia bien arteko erantzunkizun prozesua izan dadin.

Amari harrera egitea, entzutea, hura lasaitzea, orientatzea, gauzak iradokitzea, behatzea eta baloratzea izango litzateke, oro har, gure helburu nagusia.

## 3. ANTOLAKUNDEA ETA FUNTZIONAMENDUA

### 3.1. Taldeak

Programa hau abian dagoen auzo bakoitzean, irailaren hasieratik uztailaren amaieraraino batzen da ama talde bat euren seme-alabekin.

Komunikazioa eta harremanak bideratzeko aukera onenak ematen dituen taldea 12/14 bat lagunez (amez) osaturikoa da eta tamaina horrixi eusten ahalegintzen gara ikasturtean zehar. Ametariko batzuk, amatasun baja bukatu ondoren, lanera itzuli behar dutenean, beste batzuk sartzen dira taldean, haurrak erditu ahala. Horrelaxe eusten diogu taldearen kopuru orekatu horri.

Ikasturtean zehar 30 bat ama igarotzen dira talde bakoitzetik.

Dena delakoagatik kanpoan lanik ez duten amek taldean jarraitu nahi badute, «Espai Familiar»era pasatzeko aukera ematen zaie, haurrak hazi ahala mugitzen hasten direnez, hango espazioak eta materialak egokiagoak direlako euren etengabeko eboluzioari erantzuteko eta, era horretan, haurtxoak autonomia nola bereganatzen duen behatu ahal izango dutelako, eginkizun horretan kolaboratuz eta seme edo alabaren aurrerapenak beste amekin batera baloratuz.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

3.2. Saioak

Amak haurtxoekin etortzen dira asteko batzarretara eta horrexetarako prestaturiko gune batean egiten diegu harrera. Bertan kotxetxoak utzi ditzakete, pixoihalak aldatu, ditia eman, biberoi edo ahia prestatu eta abar... eta, hala, denok batera, mahai baten inguruan gosaldu egiten dugu. Horrelaxe ekiten diegu gure «solasaldi-hartu-emanei» (horixe baita lortu nahi dugun giroa).

Haurrak hazi ahala, denbora gehiago egoten direnez esna, koltxoiska batean etzanda jolastu dezakete eurek erabiltzeko egokiak diren gauzekin. Aldi berean, adin bereko beste haurrekin lehen ikaskuntzak eurenganatzen dituzte.

Hezitzaileek gidatzen dituzte saioak. Adi daude gertatzen den guztiaz jabetzeko. Amek proposatzen dituzten gaiak arretaz entzuten dituzte eta elkarrizketa bultzatzen dute, solasaldiak orientatu eta bideratuz, berez irtetzen diren komentarioen edo bizitako egoeren alderdirik nabarmenenak azpimarratuz. Horiez gainera, haurren hezkuntzarako interesgarriak diren gaiak proposatzen dituzte.

Amek euren interesak, dudak eta kezkak azaleratzen dituzte eta hezitzaileak ama bakoitzaren eboluzio prozesua behatzen du, bai bakoitzaren nortasunaren garapenari dagokionez, bai haurraren garapenari dagokionez eta halaber bien arteko harremanari dagokionez.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

Bakardade egoerak ikusten dira, haurren eboluzio prozesuan agertzen diren egoera kritikoei irtenbide bat emateko zailtasunak... eta guk arretaz eta begirunez laguntzen diegu, arreta berezia behar duten amei nondik nora jo azalduz, gure helburua ez baita terapeutikoa, hezkuntzazkoa baizik. Horrelako arazo bat antzematen badugu, hura ulertzen ahalegintzen gara, ez hura konpontzen.

Urte hauetan zehar, amen iradokizun, interes eta eskakizunen bidez bildu ditugun gaiak asko dira eta nahiz eta auzo bakoitzeko ezaugarriak eta partaide bakoitzaren maila soziala ezberdinak izan, badira zenbait faktore, beti agertzen direnak amatasunak dakarren errealitatean, giro ezberdinetatik etorri arren.

Gaiak bi taldetan sailkatu daitezke:

1. Amari buruzko gaiak

- Errekuperazio fisikoa.
- Eradoskitzea (diti ematea).
- Gorputzaren aldaketak.
- Erditze ondorengo depresioa.
- Kuarentena.
- Erditze osteko metodo antisorgailuak.
- Bikote harremanak, sexualitatea.
- Nola konpartitu eguneroko lanak eta haurraren zainketa.
- Sentimenduak eta sentsazioak erditze ostean.
- Dieta orekatua.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

- Haurtzaroko oroitzapenak.
- Familiakoen harremanak.
- Ospitalea, etxera heltzea, bisitak.
- Etxeko lana; nola antolatu denbora.
- Aita, bikotea amatasun/aitatasunaren aurrean.
- Eguneko 24 orduetan ama eta etxekoandre izatea.
- Lanera itzultzea. Lan eskubideak.
- Haurra, non hobeto? haurtzaindegian, amonarenean ala beste nonbait?
- Autoafirmazioa «ama izaten jakin».

2. Haurraren eta amaren arteko harremanari buruzko gaiak.

- Amaren esnea ala biberoia?
- Elkar ezagutza nola finkatu.
- Nola antzeman eta asetu haurraren beharrak.
- Nola hitzegin eta tratatu. Komunikazioa haurtxoarekin.
- Ahoa, inguruarekin harremanetan jartzeko duen garrantzia.
- Txupetea ala erpurua?
- Sabeleko mina.
- Garapen psikomotorea. Oinak.
- Haur bakoitzaren berezko erritmoa. Haur urduria, haur lasaia.
- Loa.
- Elikadura. Janari berrien ezagutza. Pisua.
- Etxeko istripuak. Aurrikuspena.
- Txertaketak, kutsaketak. Osasun hezkuntza.
- Haurraren arropak. Higienea. Bainua. Pixoihalak.
- Oporrak. Bidaiak. Hondartza. Mendia.
- Jolasa. *Altxorren ogi-otarrea.*
- Kantuak. Kantatu eta grabatu.
- Haur eskolara bisitaldia.
- Adiskide berriak eta taldea. Elkarri laguntzea.

3.3. Profesional taldea

Profesional taldea honako hauek osatzen dute:

Koordinatzaile 1
2 hezitzaile

Hezitzaileek amak eta haurtxoak hartzen dituzte eta erraztu egiten dute haien integrazioa taldean. Giroa eta materiala prestatu eta taldeko amen arteko konfidantza errazten dute, batzarren nondik norakoak eta haurren eboluzio eta hezkuntza prozesua behatzen dute eta, azkenik, ondorioak atera eta lantzeko gai berriak proposatzen dituzte.

Koordinatzaileak jartzen du abian taldea. Gero koordinatu egiten du. Laguntza, orientazioa eta prestakuntza eskaintzen die hezitzaileei. Saioetan ere parte hartzen du eta orpoz orpoz jarraitzen ditu talde bakoitzaren urrats guztiak.

Zerbitzu honek auzo eta barrutiko instituzioekin eta beste zerbitzuekin dituen harremanen ardura ere berea da. Zerbitzu horien artean zerbitzu pertsonalak, lehen arretarako zentruak, oinarrizko osasun etxeak, famili plangintzarako zentruak eta abar daude. Zerbitzu hauetako edozeinen beharra izan dezakete amek, hargatik, koordinatuta gaude horiekin guztiekin.

Lantaldea osatzeko, beste bi profesional daude gurekin elkarlanean dihardutenak. Programaren edukin eta helburuei laguntza ematen diete eta aldika-aldika gure jardunean parte hartzen dute, agertzen diren gaiei erantzun egokia emateko.

Horien artean gurekin harreman estuena dutenak hauexek dira:

Emagina. Lehen arretarako zentrukoa da. Bertara jotzen dute emakume batzuk haurdunaldian erditzea prestatzeko saioetan.

Pediatra. Hilean behin etortzen da batzarretara, amek haurraren hazkuntza eta osasunari buruz azaltzen dizkioten gaiak argitzeko asmoarekin.

Taldearen eboluzioa kontuan hartuta, beste profesional batzuk ere ekartzen ditugu, amek informazio gehiago eskatzen dutenean, gaiak sakondu ahal izateko; hauexek izan daitezke gaiok:

- Dietetika
- Haur masajea
- Eta abar.

Zenbait ostera ere antolatzen dira talde osoak zentru edo erakunde interesgarriak ezagutu ditzan:

- Haur igerilarientzako igerilekuak.
- Haur eskolak.
- Erakusketaren bat.
- Auzoko erakunderen batek antolaturiko jaialdiren bat.

## 4. PROGRAMAREN HEDAPENA

Programa abian jarri, eutsi eta hedatzeko, hainbat harreman izaten dira auzoan eta barrutian haur, emakume eta familiarentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde eta instituzioekin. Besteak beste hauexekin:

Barrutiko zerbitzu pertsonalekin.
Gizarte laguntzaileekin.
Emakume taldeekin.
Osasun etxe publikoekin.
Lehen arretarako zentruekin: emaginak, erizainak, pediatrak...
Haur eskolekin.
Udal ospitaleekin.
Auzo elkarteekin.
Emakumeen laguntzarako erakundeekin.
Famili plangintzarako zentruekin.
Eta abarrekin.

Harreman guzti horien helburua auzoko sektore guztietara ahalik eta ondoen heltzea da eta aldi berean esperientzien trukea egitea, zerbitzuak baloratzea, estrategiak planifikatzea, eta abar. Azken batean, elkarlan estua sortzea da gure asmoa.

Amak eurak ere hedatzaile onak dira, izan ere, euren esperientzia eta gogoa dira programaren propagandarik onena.

## 5. PROZESUA ETA BALORAZIOA

Talde bakoitzak nortasun berezia dauka, auzoaren eta taldekideen ezaugarrien araberakoa.

Gehienetan, haurtxoaz gainera, amak izaten dira parte hartzen dutenak. Behin edo behin aitak ere parte hartzen du baina ez da maiz gertatzen lan orduak direla eta. Hargatik, noizean behin zenbait saio arratsaldez antolatzen dira bikoteak etorri daitezen. Aurretik hautatzen ditugu iritzi-trukea egiteko hartu nahi diren gaiak.

Taldearen heterogeneitatea ez da oztopoa izaten hark aurrera egin dezan. Aitzitik, aniztasun horretan, amak *hazi* egiten dira eta, esperintzien hartu-emanaren bidez, euren sentimendu eta sentzazioen islada ikusten dute besteengan, ikuspegi desberdinetatik.

Ez dugu «ama izaten» irakasten. Aitzitik, denon artean dakiguna hausnartzen eta egiaztatzen irakasten dugu. Hemen ez dago gainekorik ez azpikorik, elkarlaguntza eta ulermen gaitasuna baizik. Azken batean, autoafirmazioa lantzen dugu, orientazioaren eta harreraren bidez.

Jarraian transkribatu ditugun amen komentarioek pentsarazten digute programa hauek benetan direla funtsezkoak amatasunaren prozesuan eta, gogobetekoak direla, helburuak lortzen direla. Dena den, ez dugu horregatik sekula gure lanaren egokitasunari buruzko hausnarketa eta eztabaida alde batera uzten.

*- Zalantzak argitzen lagundu dit.*

*- Ez naiz ni kezkatzen den bakarra, nire kezkak ni bezala dauden beste neska batzuekin batera bizi ditut.*

*- Etxetik irtetzen eta arratsaldea nire gauzez hitzegiten ausartzen naiz orain.*

*- Beste neska batzuekin nago eta adiskideak egin ditut.*

*- Depresioa eta bakardade sentimenduak gainditu ditut.*

*- Egunerokotasunetik irtetzen naiz.*

*- Nahiago dut entzutea, horrek lagundu egiten dit.*



***Bartzelonako "Espai Familiar"***

*- Nire semearen jokabideak ulertzen hasi naiz.*

*- Nik badut lagun talde bat, baina hementxe aurkitzen diet konponbidea nire arazoei.*

*- Lasaitzeko balio dit.*

*- Batzar eguna iristeko zain zaude, esperientziak konpartitzeko.*

*- Elkarrekin ikusten dugu nola hazten diren seme-alabak.*

*- Astelehen batean kale egin badut, honen falta sentitzen dut.*

*- Gauza asko ikasi dugu.*

*- Senarrek etorri ahal balute, gauza asko ikasiko lukete. Senarrari gauzak azaltzen dizkiodanean ez dit hemengoek bezalako arretarik eskaintzen.*

*- Hemen ez du inork ikasgairik ematen, lagunarteko giroa dago.*

*- Haurrarekin jolasten ikasi dut.*

*- Oso urduri etorri nintzen eta jadanik lasaiago nago.*

*- Lehenengoz irten naiz etxetik nire gauzez hitzegiteko.*

*- Taldekide guztiek ulertzen dituzte zure arazoak.*

*- Hezitzaileek zure arazoak ulertzen dituztela sentitzen duzu.*

*- Hemen esaten ditugunak ez dira liburu eta aldizkarietan agertzen.*

*- Pediatrak oso gauza garrantzitsu batez jabetzeko bidea eman digu: gauza bat dela informazio hitzezkoa eta beste bat jokabidezkoa.*

*- Zure alaba oso gauza garrantzitsua da eta hezitzaileek beti dute unetxoren bat gurekin hitzegiteko.*

*- Ama batek zurearen antzerako arazo bat duenean esaten duena entzuten ikasi dut eta konturatu naiz, gehienetan, hitzegin hitzegiten dugula baina entzun ez.*

*- Gure amak emandako erremedioren bat edo beste egiaztatu dut; lehen erremedio horiek ez ziren guztiz fidagarriak niretzat.*

*- Pertsona gisa ikasten dugu.*

Programa honetan parte hartzen duten amak giza-harreman berrien bila datoz, euren moduan amatasuna biziko duten beste batzuekin esperientzien trukea egitera, rol berri hori elkarrekin bizitzera.

Asmo honek -itxura batean ondo sinplea denak- umeari eta amari elkar ezagutzen laguntzen die. Amak egunero-egunero behatzen du haurraren hazkuntza eta hobeto ulertzen ditu haren eskakizunak, giro lasai eta atsegin batean (hitzaren zentzurik zabalenean).

Zorionez, esan dezaket programa hau esperientzia zoragarria dela eta izan dituen ondorio onuragarriak ikusita, ziur nago bizitza gauza sinpleekin ere osatzen dela, bizitzaren mamiari balioa eta segurtasuna ematen baitiote gauza sinple horiek.



*Helen Oxenbury. "Ayudando". Ed. Juventud*

# E SPAI FAMILIAR»[1]

## Haurtxoentzako hezkuntza-zerbitzua

*Montserrat Jubete Andreu*

«Espai Familiar» eskolatu gabeko hiru urtetik beheragoko haurrak dituzten familiei zuzendutako zerbitzua da. Helburua bikoitza da, batetik, familiaren ingurugiroa berrindartzea eta, bestetik, haurren garapen orokorra erraztea. Gurasoei laguntza eskainiko zaie isolamenduak eta seme-alaben heziketan eta hazkuntzan egunero sortzen diren arazoak konpontzeko zailtasunak eragindako egoera arriskutsuak aurrikusi ahal ditzaten.

Zerbitzuak honako oinarri hauek ditu: gurasoek lehenengo hezitzaileak izateko duten gaitasunarekiko konfidantza, aniztasunerako eskubidea eta laguntza/laguntasuna terminoaren kontzepzio berezia, zeina agente guztien protagonismoan, elkarlanean eta elkarrekin lortu beharreko garapenaren eta ikaskuntza eragingo duen giza-elkarral-daketaren garrantzian oinarrituta baitago.

Helburua, berriz, honakoa da: umeen ardurak eta hezkuntzak eragiten dituzten behar desberdinei aurre egin ahal izateko, familiak dituen aukerak zabaltzea («bressol escola»-ren zerbitzuak erabili behar edo erabili nahi dituztenak, seme-alaben hezkuntzaz arduratu nahi dutenak...). Beraz, «Espai familiar» instituzio mailako beste eskaintza bat da. Gurasoei haurra hezitzen laguntzeko eta bideratzeko helburua du. Halaber, familia barruan haurrak bizi dituen esperientzietatik kanpo, beste esperientzia batzuk eskainiko dizkion heziketa-gunea ere bada.



*Catherine Dolto-Tolitch. "Un bebé en casa"*
*Ed. Didascalia*

[1] "ESPAI FAMILIAR" zerbitzua sortzeko egitasmoaren egileak honakoak dira: Proyecto Contex Infància del Area d'Educació de l'Ajuntament de Barcelona eta Bernard van Leer Fundazioaren zerbitzua.

Adierazitakoaren arabera, zerbitzuaren xedeak eta funtzionamenduak argi eta garbi erakusten dute helburu hezitzailea:

• Haurrari giro aproposa eskaintzen zaio, beste ume edo guraso batzuekin jolastu, esperimentatu eta harremana izan dezan. Profesionalak haurren garapenari eta hezkuntzari buruzko jokabide, iritzi eta balio desberdinen inguruko eztabaida bultzatzen du gurasoen artean. Umearekin jarduteko ereduak eskaini eta erraztasunak ematen ditu pertzepzioa ume horren gaitasunera moldatzeko eta gurasoak lehenengo hezitzaile bezala duten garrantziaz kontura daitezen.

• Elkarri laguntzeko eta norberaren jakinduria gainerakoei eskaintzeko guneak sortzeko kontaktu sozialak propiziatuko dira, haurraren eta gurasoen giza-sarea zabalduz. Zerbitzua eskola eta familiaren arteko erdi-gunea da. Bertan, haurrak lehenengo ikutua izango du funtzionamendu-arau eta forma batzuk dituen munduarekin. Forma eta arau horiek ez daukate zertan bat etorri ordura arte familian ezagututakoekin.

• Seme-alabak hazteko eta hezitzeko eta haurraren garaenean gertatu daitezkeen krisiei aurre egiteko zailtasunak eragiten dituen arrisku egoerak aurrikusteko baliabideak eta laguntzak eskaintzen dira.

Ama eta seme-alaben arteko harremana bultzatzen da, gurasoek berez euren seme-alabekiko harremanean dimentsio berriak aurkitu ditzaten. Bestalde, ama eta seme-alaben arteko banaketa-prozesuari hasiera ematen zaio, bakoitzak autonomia handiagoa izan dezan.

Horrela eskatzen dutenean, gurasoei eta haurrei orientabideak ematen zaizkie, hezkuntza-eremutik kanpo dauden eskari zehatzei erantzuteko dauden zerbitzuei buruz.

## ANTOLAKUNDEA ETA FUNTZIONAMENDUA

Gaur egun zerbitzuak lau talde ditu: bi goizez eta beste bi arratsaldez. Haurtxoak bere familiako helduren batekin (amarekin, aitarekin, aitonarekin, amonarekin, izekoarekin...) joan daitezke, astean behin edo birritan, aldez aurretik hezitzaileekin batera eguna eta ordua erabaki ondoren.

Saio bakoitzeko egun-kopuru komenigarriena hamabi da eta egokia izaten da talde iraunkorra eratzea, egun zehatz batzuetan asistentzia ziurtatzeaz gain, profesionalen partehartzea erraztu egiten delako. Guzti horren ondorioz, gurasoen artean sor daitezkeen zalantzak eta iritzi desberdinak azaleratzeko harremana eta giroa lortzen dira.

Gaur egun zerbitzuak bi hezitzaile ditu egun osoz eta psikopedagogo bat egun erdiz. Haurrekin lan egiten dutenean hezitzaileei laguntzeko boluntario batzuk daude.

### Saioen edukia eta jarduera

Proposatutako helburuekin bat etorriz, zerbitzuaren funtzionamendua eta antolamendua ezagutzeko, saio baten eskema eta egitura zehaztuko dugu. Aipatutako saio baten osagaiak honakoak dira: saioak dituen une desberdinak, bataz besteko iraupena, haurrengandik eta helduengandik espero dena eta aipatutako une bakoitzean profesionalen partehartzea.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

***Harrera**

Umea eta haren laguntzailea (gehienetan ama) zerbitzura heldu eta hezitzaileak berehala arduratzen dira harrera egiteaz. Taldean sartzen laguntzen diete, bakoitzak bere lekua aurkitu dezan. Ez dago sartzeko ordurik, norbera, familiaren erritmoaren arabera, ondo dagokionean helduko da.

***Helduek eta haurrek batera egiten dituzten jarduerak (60´)**

Amak askatasun osoa izaten du seme-alabekin jostailuak eta materialak erabiltzeko; edota ikusi ahal izaten du nola moldatzen den bere semea edo alaba familiatik kanpoko giro batean. Amek gozatu egiten dute haurrek egun batetik bestera aurreratzen dutena ikustean eta harritu egiten dira umeek erakusten duten potentzialtasun-emariaz. Hezitzaileak helduaren eta haurraren artean sortzen den harremana aztertu eta, beharrezkoa bada, parte hartzen du distantzia egokia ezartzen laguntzeko, haurrarekiko elkarrekintzak, baliabideak eta ereduak eskaintzeko, gurasoei materialak erabiltzen laguntzeko eta orientatzeko eta, azkenik, haurraren aurrerakuntzak eta ahalmenak ezagutzera emateko.

***Helduek eta haurrek banaturik egiten dituzten jarduerak (60')**

**Prestakuntza (15´)**

Banatzeko unea heldu baino lehentxoago, haurrentzako jarduerekin hasiko gara. Hezitzai-

leak materiala prest du eta proposamena aurkezten du. Ama/aita...haurraren ondoan geratzen da, ekintzan interesa jartzen duen arte. Une horretan umea aldibaterako agurtu eta gainerako gurasoekin elkartzen da. Umeari adierazi beharko dio proposatutako ekintza bukatutakoan berriro berarekin elkartuko dela.

**Haurren jarduera (45´)**

Boluntario baten laguntzaz, hezitzaile bietako batek espazioa eta materialak antolatuko ditu, adin desberdinetako haurrak proposamenetan parte hartzera anima daitezen. Hainbat elementu eta material (ura, buztina, irina...) erabiltzeko aukera ematen zaio. Erreferentziazko helduengandik urrun egoten eta ohizkoa ez den heldu bat (hezitzailea, boluntarioa edo helduen topaketan parte hartzea oraindik erabaki ez duen ama bat) jasaten laguntzen zaio haurrari, erritmo desberdinak eta bakoitzaren beharrak errespetatuz, noski.

Haurren arteko begirunea eta elkarlana bultzatzen dira.

**Helduen jarduera (45´)**

Nahi izanez gero, amak beste hezitzailearekin eta, inoiz, psikopedagogoarekin biltzeko aukera izaten du, haurraren hazkuntzari eta hezkuntzari buruz ikuspuntuak, esperientziak, jakinduria, zalantzak eta abar adierazteko. Hezitzaileak eta psikopedagogoak elkarrizketa zuzendu eta usteak argitzen, haurraren garapenaren berri ematen eta sortzen diren gaiei buruzko eztabaidak sakontzen lagunduko dute. Horrela, gogoetarako gune bat sortzen da, norberak bere ondorioak atera ditzan.

Saioa bukatu ondoren, parte hartu duten ametariko batek taldearen egunkarian aztertu denaren laburpena idazten du. Hurrengo saioa egunkariaren irakurketarekin hasiko da eta aipatutako aurreko saio horretan parte hartu ezin izan zuenak aztertutako gaiak ezagutu ditzan balio izango digu.

Saio bakoitzean eginiko pertehartze guztiak zehatz-mehatz idazten dira, ikusitako gaiak, iritzien eta eskarien bilakaera eta aipatutako helburuak lortzeko profesionalen azalpenik egokienak aztertu ahal izateko.

***Agurra(15´)**

Denek batera materiala batu eta bere lekuan jarriko dute hurrengo saiorako. Haurrek eta helduek batera egin dezaketen ekintzaren bat (abesti edota dantzaren bat) proposatuko dute hezitzaileek, jardunaldia modu jostagarrian bukatzeko.

**Gogoeta(30´)**

Saioa bukatutakoan, profesinalek jardunaldiari eta partehartze desberdinei buruzko informazioa aztertzen dute elkarrekin. Hezitzaileek gertakizun adierazgarrienak eta sortu diren zalantzak eta ziurtasunak egunkarian idazten dituzte, astero izan ohi den bileran azterketa eta gogoeta sakonagoa egin ahal izateko.

Profesionalen partehartzea saioaren une desberdinetara egokitzen da. Partehartze hori malgutasunean, begirunean, tolerantzian zein disponibilitatean eta jokabide ireki batean oinarrituta dago. Nagusien eta txikien eskariak eta beharrak bideratzeko, adi-adi entzun eta neurriz hartuko dute parte.

Argi dago helduak elkarrekin bildu daitezen nahitaezkoa dela, batetik, haurra bere laguntzailearengandik aldentzea eta, bestetik, aipatutako laguntzaile horrek hezitzailearengan konfidantza izatea. Biren arteko harreman horrek hirugarren bat onartzea, beharrezkoa den elkarrekiko begirune -eta konfidantza- prozesu baten ondorioz lortuko da. Aipatutako prozesu horretan amak/aitak, haurrak eta hezitzaileak hartuko dute parte.

Lehengoz datorren gurasoak ez du aipatu berri dugun ariketarik egingo, heldua eta umea ingurunea ondo ezagutzeko eta pixkanakako banaketa jasateko gai ez diren arte. Zerbitzuak dituen helburu konplexuetariko bat banaketa-prozesua egoki bideratzea da. Izan ere, horretan datza, neurri handi batean, eguneroko saioetan aurrikusitako funtzionamendua: gurasoaren eta seme-alaben arteko urrunketa laburraren onarpenak baldintzatu egiten du helduen jarduera.

**Profesionalen jarduerak eta partehartzea**

Familia barruan, helduen eta haurren arteko harremana eguneroko zainketa fisikora mugatu ohi da. Hori dela eta, zerbitzuan egoera batzuk prestatzen dira gurasoak eta seme-alabek elkarrekin jardun eta jolas dezaten, material eta proposamen desberdinak erabiliz. Halaber, haurrarekiko harremanean guraso bakoitzak eskaintzen duen eredua aztertu ahal izateak seme-alabekin etxean erabiliko diren baliabideak eta estrategiak aberastea dakar.



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

Haur gehienek amarekin dute harreman zuzena. Beste heldu batzuek (neba-arrebek, aitona-amonak, aitak) ez dituzte egunero-egunero zaintzen. Horregatik, komenigarria izaten da umea beste esperientzia batzuetara zabaltzea, harreman-eredu desberdinak ezagutu eta eraiki ditzan.

Azken bi urteotan amengandik jasotako adierazpenek argi utzi dute haurrek dituzten gaitasun batzuk berezkotzat jotzen dituela jendeak eta familia barruko heziketari ez zaiola berez daukan garrantzia ematen. Hori dela eta, beharrezkoa da gurasoak, lehengo hezitzaileak diren neurrian, euren partehatzearen garrantziaz ohartu daitezela. Hezitzaileen eta psikopedagogoaren lana konfidantza, begirunea eta tolerantzia giroa sortzea da, «jakinduria» desberdinak konpartitu ahal izateko. Profesionalen «jakinduria» hori teorikoa izango da, gurasoena, berriz, praktikoagoa, baina aurrekoa bezain baliagarria eta aberatsa.

Profesionalen asmoa haurren ongizatea eta helduen hazkundea eta autoestima pertsonala bultzatzea da. Eginkizun hori lortzeko, betetzen duten lanaren ezaugarri batzuk honakoak dira: batetik, seme-alaben eta amaren arteko harreman-mota desberdinekiko begirunea eta sentsibilitatea izatea, ama batzuen urrunketaren beharra eta beste batzuen gehiegi babesteko joera ulertuz. Bestetik, zeharkako partehartzea, gurasoek beren seme-alabekin beste harreman-mota batzuk aurkitu ditzaten (nahiz eta harreman horiek hezitzaileentzat beti egokiak izan ez).

Zerbitzuak duen beste helburu bat honakoa da: haurren eta euren beharren pertzepzio egokia bultzatzea, norberaren seme-alaben gaitasunak eta ahalmenak aztertuz eta baloratuz. Frogatu dago haurren gaitasunekiko helduek erakusten duten jokabideak neurri handi batean mugatu egiten dituela umeekin egiten diren ekintzak, egiteko proposatzen zaizkienak eta aipatutako ekintza horiei ematen zaien autonomia eta iniziatiba maila.

**Profesionalen lana**

Zerbitzu honetako eta «escola bressol»-eko profesionalen lana desberdina da. Ez da haurrekin bakarrik lan egiten. Haurrarekin lan egiten da, baina berarekin doan helduarekiko harremana kontuan hartuz. Helduari aukera ematen zaio haurra familiatik kanpoko giro batean ikusteko, esperientziak eta iritziak adierazteko eta entzuteko eta lehenengo hezitzaile bezala bere buruarengan duen konfidantza indartzeko.

Amak eta haurrak batera egoteak, adin desberdintasunak eta esperientziaren originaltasunak ikuspegi berriak zabaltzen dizkiete profesionalei eta konpondu beharreko beste zailtasun batzuk sortuarazi. Onartu behar da haurrengan ezin dela izan eskolan dagoen «aginte» eta «kontrol» berbera. Ama, aita edo aitona aurrean daudenean haurrek ez dute erraz onartzen beste heldu batzuen partehartzea. Profesionalak parte hartzen duenean oinarrizkoak dira sentsibilitatea eta ama eta seme-alaben arteko loturari begirunea izatea. Bestalde, amak ahalegina egin behar du seme-alabek hezitzailearengan konfidantza izan dezaten (batez ere, hezitzaileak ezarri nahi dituen arauek haurrarengan gatazka eragiten dutenean).

Zerbitzuan ohartu gara helduek euren seme-alabekin duten partehartzea modu askotakoa izan daitekeela eta horren ondorioz, familia egiteko moduak ere oso desberdinak izan daitezkeela. Modu horiek ez datoz beti bat hezitzaileak propo-

satzen dituenekin, are gutxiago «eskolako kulturakoekin». Horrek bereizketa bat egitea eskatzen du egia dela ziurtatuta dagoenaren eta egia omen denaren artean. Partehartze mota desberdinak erabili edo, gutxienez, onartu behar dira, nahiz eta kalitate aldetik garrantzigabekoak direla iruditu. Aipatutako partehartze horiek erreferentziazko eredu kultural desberdinak izaten dituzte.

Psikopedagogoak hezitzaileen lana ikuskatu eta bideratuko du. Bestalde, haurrekin zerikusia duten inguruko profesionalekiko eta erakundeekiko harremanak koordinatuko ditu. Halaber, helduen arteko elkarrizketa eta elkartruke-saio batzuk zuzenduko ditu eta zerbitzua ez dadila instituzionalizatu ahaleginduko da, helburuak errealitatera eta sortzen diren beharretara egokituz.

**Nork erabiltzen du zerbitzua?**

Gehienak seme edo alaba bakarra duten ama gazteak dira. Nahi izan dutelako edo «escola bressol»etan plazarik lortu ez dutelako, lana utzi eta haurra hazteari eta hezteari ekin diote. Konturatzen dira ama-lana ondo betetzeko, nahitaezkoa zaiela beste heldu batzuekin harremanetan jartzea, etxetik irtetzea eta amatasunari buruz edo beste gai batzuei buruz (emakume, emazte eta pertsona izateari buruz) hitzegin ahal izatea.

Batzuek lanera bueltatzeko asmoa dute, haurra hazi eta eskolara hasten denean. Beste batzuk, ordea, gustora daude etxekandre izatearekin eta ez dute etxetik kanpo lan egiteko beharrik ikusten. Gaurko gizarteak mezu kontrajarriak za-



*Bartzelonako "Espai Familiar"*

baltzen ditu. Esaten da emakumearen zeregina ama ona izatea dela baina, bestalde, emakumea mespreatua sentitzen da, emakumea lan-munduan sartzea (nahiz eta amatasunarekin konpaginatzea zaila izan) bere liberazioaren mito bihurtu den mundu honetan.

Emakume batzuek haurra «escola bressol»era ez eramatea erabaki dute, uste dutelako lehenengo urteetan amak berak zaindu behar dituela umeak. «Escola bressol» publikoen eskaintza urria da eta emakume batzuentzat oso zaila izaten da ama izatez gain, etxetik kanpoko lanbidea behar bezala betetzea. Horrek ere haurra «escola bressol»era ez ekartzea eragiten du.

Umeak urtea betetzen duenean, hau da, autonomoagoa izaten hasten denean, emakume batzuek «hirugarren bat» sartu nahi dute haren heziketan. Lanik egiten ez badute, hasiera batean ez dute haurra egun osoan eskolan uzteko beharrik (batzuen ustez udal «escola bressol»-etan derrizgorrezkoa da seme-alabek bertan jardunaldi osoa egitea) eta euren seme-alaben harreman-eremua handitzeko beharrari erantzun bat eman nahi izaten diote.

Zerbitzua erabili ohi duten pertsonek adierazten digute umeak pozik jartzen direla «Koloretako Etxera» doazela entzuten dutenean. Helduei ere gustatu egiten zaie zerbitzua erabiltzea, egunerokotasuna apurtzeko eta harreman-sarea zabaltzeko modua direlako. Lagun arteko harremanak eta elkarri laguntza eskaintzeko harremanak sortzen dira. Batzuek auzoan antolatzen diren ekintzetan parte hartzea erabakitzen dute (hori baita garapen komunikatiboa lortzeko lehenengo urratsa).

Bibentziak eta zalantzak beste heldu batzuei adierazi ahal izatea guztiz mesedegarria ikusten dute, heziketak suposatzen duen erantzunkizunean bakardadea gainditzen laguntzen dielako. Etxean umeari buruz, egiten duenari buruz, ikasten duenari buruz gehiago hitzegiten laguntzen du. Saioetan eztabaidatzen diren gaiak familia barruan ere proposatzen dira, haurraren hezkuntzari eta garapenari buruzko gai berriak sartuz. Adierazten dute «amarena egitea» batzuetan ez dela batere onuragarria. Heziketaren alderdirik gogorrenak (arauak, mugak...) beren gain hartu behar izaten dituzte eta ezkontideak ez du behar den beste laguntzen. Amak, gehienetan, ordu asko ematen ditu berak bakarrik seme-alabak zaintzen, beraz, gauean, senarra etxera bueltatzen denean, hark aitarena egin dezan nahiko luke, atsedenalditxo bat hartu eta mugak ezartzea suposatzen duen lan astunean laguntza izateko. Baina aita askotan ez dago prest semearekin edo alabarekin ematen duen denbora amak ezarritako arauak betearazten galtzeko. Gainera, batzuetan ikuspuntu desberdinak izaten ditu eta horren ondorioz ondoeza eta eztabaida pizten dira.

Ama batzuek zerbitzura doazenetik jokabidea aldatu egin dutela onartzen dute. Sortzen diren gaiei buruzko gogoeta egiteak ziurtasuna ematen die beren seme-alabekiko harremanean. Beste batzuek gustora doazela adierazten dute, espazioa eta materialak haurren beharrak kontuan hartuta antolatuta daudelako eta, etxean ez bezala, ez dutelako denbora guztian «ez» esaten ibili behar. Etxean haurren eta helduen beharrak ez dira beti modu orekatuan erabakitzen.

Azken finean, guraso guztiekin gertatzen den bezala, seme-alaben hezkuntzaz arduratzen dira eta jakin nahi dute haurrak eskolara hasten direnean ze baliabide izango duten, irakasleekin

batera heziketaren erantzunkizunari aurre egiteko eta umeen aurrerapenetan parte hartzeko.

**Montserrat Jubete Andreu**. Maistra eta Pedagogia lizentziatua. *"Proyecto Infancia"* deritzon proiektua bultzatzen duen taldeko kidea da. Aholkularitza, koordinazio eta ikuskaketa lana egiten du *Espai familiar* zerbitzuan.



*Helen Oxenbury. La familia. Ed. Juventud*



*Helen Oxenbury. A la cama. Ed. Juventud*

## Iturri bibliografikoak

«Empo per le Famiglie» un'iniziativa per bambini e genitori. Luigi Anolli e Susana Mantovani (lan memoria).

«Más que 'un poco de paz y quietud'» Un caso de estudio de una madre y un grupo de pequeños en Belfast. Nicola Mc.Ildoon. 123 House, 1991.

«Lieyx d'accueil et de Recontre Petite Enfance». Christian Nain. 1. eta 2-3. boletina, Petit Enfance Cereda, Paris, 1989.

«Sur les traces des petits enfants avec leurs parents: La Harpe 13». Christian Nain. Laure Thibaudeau, 2-3. boletina, Petit Enfance Cereda, Paris, 1989.

«La demande et les symptomes». Laure Thibaudeau. 1. boletina, Petit Enfance Cereda, Paris, 1989.

«L'Education Parentale». J. P. Pourtois, H. Desmet (91-04-02 dok. G.D) Mons-eko unibertsitatea (Belgika), Zientzia Psikopedagogikoen Fakultatea. CERIS (Centre de Recherche et Innovation en Sociopedagogie Familiale et Scolaire). Mons, 1991.

«La Technique des incidents critiques. Synthese». Forgione, A. (86-04-21 dok. G.D) Mons-eko unibertsitatea (Belgika), Zientzia Psikopedagogikoen Fakultatea. CERIS (Centre de Recherche et Innovation en Sociopedagogie Familiale et Scolaire). Mons, 1991.

# HIRURETAKO KAFEA

*Montserrat Perramon*

**Izenburu harrigarri batekin eta aire informal batean, artikulu honek esperientzia sakon eta benetako baten azalpena eskaintzen digu. Beharbada, zenbaitentzat metodoa eztabaidagarria da, beste batzuentzat gorestekoa, baina gaia serioa eta garrantzitsua da: *guraso-irakasleen arteko harremana haur-eskolan.***

**Hezkuntzaren inguruko beste gai batzuk bezala, hau ere hainbat arlotan edo hainbat ikuspegitik jorratu daiteke: antolakundea, egiturak, korporazioa, azaletik, sakonean, era teorikoan zein enpirikoan.**

***Hiruretako kafe* honetan, esperientziaren deskripzio zehatzak gaiaren konplexutasuna erakusten digu, gai horri heltzeko dauden moduetako batean. Artikulu honetan sintonia gauza asko ikusi ditzakegu: elkar ulertzea, harrera ona, malgutasuna, esperientzialdian zehar agerturiko eskakizunetara egokitzeko gaitasuna, proiektua bultzatzeko orduan lantaldeak erakutsi duen gogoa, gauzak proposatzeko adorea, denari batasuna emanez, estilo bat, jokabide bat... Eta guzti hori xede argi batekin egin dute, oso-osorik lortzea azken helburua: gurasoekin harreman onetan jartzea.**

Ama talde batek eta aita bat edo bestek batzarrak egin ditu, gurekin batera, haur eskolan arratsaldeko 3retatik 5etara, seme-alabak klasean ziren artean. Mahai baten inguruan, kafe kikara bat lagun dugula, solasaldi informal batzuk izan ditugu, nahiz eta beti izan dugun kanpoko lagunen bat, azterketarako eta eztabaidarako gairen bat proposatu diguna. Hamar bat astean batu gara eta balorazioa ez dugu batzarkide kopurua kontuan hartuta egiten, batzarkideek nola parte hartu duten ikusita baizik. Hizketan gaudela, beldur guztiak bazter batean utzi ditugu.

*- Gaur azken eguna da. Datorren urtean ez gara hemen izango. Haurrak hazi egin dira eta eskolara joango dira. Baina, utziko diguzue etortzen, berriro astearteetan batzen bazarete?*

*- Zuk uste duzu etorri gaitezkeela, gure seme-alabak hemen ez badira?*

*- Oraindik batzar gehiagoren premia daukagu.*

Halaxe mintzo zen emakume talde hura ekainaren erdialdean, hamar bat asteartetan kafea hartuz solasean jardun ondoren.

Sarri askotan, hezitzaileak kexatu egin gara, bai eskola honetan eta bai beste batzuetan, gurasoek elkarlanerako edo eskolako ekintzetan parte

hartzeko gogo gutxi dutelako, hezitzailearekin izandako batzarrera guraso gutxi etorri direlako edo guk, borondate onez, oso interesgarritzat jotzen izan dugun gai bat jorratzeko hitzaldiren batean beste horrenbeste gertatu delako. «Oso-oso lagun gutxi etorri dira», eta inoiz etorri daitezkeen eta etorri ez diren horik kontatzen eta, pentsatzekoa zen bezala, beti etortzen direnak deskontatzen pasatu dugu denbora.

Aspaldi «asmatu» genuen haurren diapositibak jartzea batzar aurretik, jendea erakartzeko baina -ezin ezer artez egin eta- baten bat haserretu egin zen bere semea edo alaba bizkarrez agertzen zelako, edo neskato ilehoriaren atzean zegoelako, edo ia ikusi ere egiten ez zelako. Gehiegi espero genuen eta gurasoek gehiago eskatzen zuten edo, behintzat, beste zerbait, ezberdina. Ez genuen bete-betean asmatu, ez guk ez eurek.

Eta hara non erabaki dugun , aurten, gauzak astiro-astiro egin nahi ditugula, beharbada gogoeta gehiagorekin baina senari gehiago jarraituta ere bai. Ez dakit ondo azaltzen dudan esan nahi dudana. Uste dugu senari jaramon handia egin behar zaiola eta afektibitatea eta lasai-lasai egindako gogoeta behar ditugula. Gauza horiek, apurka-apurka, moldatu egin dute gure izaera eta, bide batez, gurasoekin ditugun hitzaldien zentzua ere aldatu egin da.

Egia esan, ez genuen horrelakorik sekula sakontasunez aztertu, baina susmatzen genuen nahi zuten gurasoek hiruretan haur eskolara etortzeko aukera izateak euren gustokoa izan behar zuela,



*Helen Oxenbury. Comprando. Ed. Juventud*

euren seme-alabak ere bertan baitzeuden, zeren batzuetan begira geratzen baikinen han «baztegrrean berriketan» geratzen zirenean, konponduko ziren ordurako platerak garbitzeko... zeren eskolak «euren» orduaz gozatzeko gonbidatzen baitzituen eta, nolabait esatearren, eskolakoa ere euren baztegrra izango zen.

Lehenengo batzarrean, udazken aldera, «Batzar Nagusia» genuen batean, iradoki genien ideia: arratsaldeko hiruretatik lauetara mahai baten inguruan eseri eta hainbat gairi buruz hitzegin nahi genuen eurekin. Guk elikadura eta higienea proposatu genituen, horiexek baitira bereziki kezkatzen gaituzten gaietariko batzuk, orain kontura ez datozen faktore soziokultural batzuk direla eta. Pentsatzeko eskatu genien eta, halaber, jorratu nahi zituzten gaiak eta etorriko zirenen kopurua esateko. Bere horretan utzi genuen. Egunak aurrera zihoazen eta Luisen ama besterik ez zen agertu. Jaiotza-kontrolaren gaia proposatu zigun. Inork ez zuen tutik esaten. Geuk ere ez. Baten batek bere haurraren hezitzaileari aldeko jarrera zuela komentatzen zion, baina gogo handiegirik erakutsi gabe. Harik eta hilabete igaro zen arte ez ziren galdezka hasi, «eta hiruretako solasaldiak, zer?». Bizkor-bizkor erantzun genien prestatzen ari ginela. Gabonak gertu zeuden eta hezkuntzarako udal batzordetik ikus-entzunezko muntaia bat egin genuen, diapositibekin, jolasari eta jostailuei buruz, haur eskolako, eskolaurreko, OHOko eta lanbide-heziketako eskolako haurrak gaitzat hartuta. Gure haur eskola Sant Joan de Vilatorrada herrian dago. Herriak sei mila biztanle inguru ditu eta Manresa ondoan dago. Lotura handia du hiri honekin eta herria izatez bestearen lohiria da. Hasi ginen, bada, bi asteartetan jolasari buruzko ikus-entzunezko muntaia hori emanez. Muntaia hori herri honetako irakaskuntza publikoko erakunde guztien artean egin genuen.



*Helen Oxenbury. Ayudando. Ed. Juventud*

Gabon jaiak amaitu ondoren, herriko pediatrarekin harremanetan jarri ginen (pediatra hau mediku handia eta eskolaren lagun ona dugu). Jakinerazi genion astearteetan hizketaldi bat egiteko asmoa genuela (hain zuzen ere, astearteetan, egun horretantxe etortzen baita bera arratsaldeko bisitaldia egitera). Asko poztu zuen gure asmoak eta, hala, asteartez astearte, gurekin izan dugu herriko medikua.

Lehenengo egunean denak geratu ziren harrituta, baita medikua ere, kafea prest ikusi zutenean («kafea ala kafesnea? azukrerik?»). Batzuek, erdilotsatuta, ez zutela nahi, eskerrik asko, esaten zuten. Eta halaxe batu gara, beti mahai beraren inguruan, 15-30 lagun.



*Helen Oxenbury. Ayudando. Ed. Juventud*

Lehen asteetan elikaduraz aritu ginen eta medikuak hautaturiko bideozinta bat ikusi genuen. A zelako iskanbila ateratzen genuen telebista eta bideoa ekarri behar genituen bakoitzean, astero-astero hura utziko zigun norbaiten bila... eta medikua zintak grabatzen!! Elikaduraren gaiaren ostean higienearena etorri zen eta gero txantxarrarena. Sortzen ziren galdera eta komentarioak ez ziratekeen hitzaldi areto batean sekula agertuko, ezta batzen ginen jantoki zabalean ere, ekitaldiak hitzaldi moduan antolatu izan bagenitu. Kezka guztiak azaltzen zizkioten «euren» medikuari, denon medikua zelako. Eta hark ez zituen saihesten, ez horixe. Medikuak ere kontsultan, astirik ez eta, esan ezin zituen gauza guztiak adierazteko aukera izan zuen... eta bi asterako eratu zenak bi hilabete iraun zuen. Azkenean, bideorik gabe, kafeari jaramon handirik egin gabe... gure gauzak azaltzen genituen eta galderak egin. Behin, medikuak hezitzaileei esan zigun mugikari bat eduki nahiko zuela, haurren bisitaldiak egiten zituen gelako mahaian eta prestatu genion bat.

Medikuekin eginiko batzar hauen ondoren, galdetu genien amei ea ez zeuden aspertuta hainbeste asteartez batzartu ondoren eta ezetz erantzun zuten. *Tesa*, Bages-eko BAPS-ekoa, gurekin kafea hartzera etortzen hasi zen. Haur txiki bat nolakoa den azaltzen zigun eta bi astearte igaro zituen zigorrei buruz hitzegiten. Denetik esan zen. Guk bagenekien, kafea hartzen geundela, norbaitek amua irentsiko zuena. Egun hartan, bere seme-alabek opari eder bat hartu zuten, emakume hark edozeinekin hitzeginez lortu nahi baitzuen barkamena... eta kalkulagailu batekin lo egiten duen neskatoaren kasua agertu zen, eta haur gehienek entzun behar izaten dituzten errietak... eta guk kafea prestatzen jarraitzen genuen.

*Lolik,* jantokiko arduradunak, bekosko iluna jartzen zuen astearteak heltzen zirenean, haur handienen janaria prestatu behar baitzuen, harrikoa egin, hiruretako kafe ordua prestatu (nagusientzako aulkiak ekarri) eta gero dena prest utzi hurrengo egunerako. Baina bizkor-bizkor ibiltzen zen, dena prest utzi ondoren, apurtxo batean guganа etortzeko. Sukaldariek ere begitarte txarra egiten zuten, astearte arratsaldez garbitzen baitzituzten asteazkenerako oilaskoak. Baina haiek ere bizkortu egiten ziren pixka batean etortzeko. Amek konfidantza hartu zuten eta, azkenean, han agertzen ziren auzolagunen batekin eta ama batek bere ama ere ekarri zuen.



*Helen Oxenbury. Comprando. Ed. Juventud*

Azken eguna ez zen asteartea izan. Ostirala izan zen, jaiotza-kontrolaz hitzegin nahi baikenuen eta ginekologoak (hura ere bere borondatez zetorrena) ostiral arratsaldez baizik ezin baitzuen itxi bere kontsulta. Egun hartan hogeita hamarretik gora batu ginen. Kikarak ez ziren heltzen, eta ez genuen denborarik izan nahi genuen guztia galdetzeko eta esateko, gure larritasunak kanpora botatzeko... Ordurako ekaina zen eta gai hori hurrengo udazkenerako uztea proposatu genuen. Jadanik eskola amaitua zuten haurren aitek ere hurrengoan parte hartuko zutela agindu ziguten.

Esperientzia honen balorazioa konplexua da eta uste dut testu honetatik bertatik atera daitekeela. Hala ere, badira zenbait kontraesan. Hezitzaile taldea, pediatra, pedagogoa, ginekologoa, denok oso gustora gaude eta hurrengo ikasturtean jarraitu egin nahi dugu. Gehien baloratzen duguna ez da taldekide kopurua, baizik eta parte hartzeen intentsitatea, gaia azaltzen zetorrenaren eta mahai inguruan eserita geundenon arteko elkarrekintza (batzuetan, mahaia bera zen solasaldiaren protagonista eta gidaria); edo, esate baterako, batzarretara zetozen batzuk, telenobelako azken kapituluaz batera, batzarretan bereganaturikoa kalean hedatzea. Funtsezkoa eta garrantzitsua da eurek guzti hau berbalizatu egin ahal izan dutela ikustea, eurenganatu egin dituztela ezagutza horiek. Garrantzitsua izan da gaia azaltzen zutenen, «jakitunen», eta mahaiko gainontzekoen artean urruntasunik sortzen ez uztea. Hala ere, parte hartzaileetariko bat ez dago pozik, guzti hori prestatzen eginiko ahaleginak, guraso gehiagoren parte hartzea merezi zuela uste baitu. Egia da ahalegina handia izan dena, euren denbora eskaini digutenak, asko balio duten eta denbora gutxi duten profesionalak direla. Baina kontua da, dozena bat lagun elkartzeko bada ere, berriro prestatuko dugula hiruretako kafea.

Hitz hauen bidez esperientzia hau ahalbideratu duten guztiei gure esker ona adierazi nahi genieke.

*("El café de las tres". Infancia 10, noviembre 1991)*

# GURASO ESKOLA

*Olarizu Haur Hezkuntzarako Udal Eskola*

## 1. HISTORIA APUR BAT

Olarizuko haur eskolako gurasoen eskola ia-ia ikastetxea abian jartzeaz batera sortu zen. Ordutik hona igaro diren urteek metodorik egokienak zehazteko balio izan dute; beti ere, gurasoen prestaketa jarrai eta etengabea lortu nahian eta familia eta haur eskolaren arteko koordinazioa bultzatu nahian jardun dugu, denon artean, erizpide bateratuak finkatu eta haurraren prestakuntza integrala lortzeko. Ikasturtea urrian hasten da eta maiatzean bukatu.



## 2. HELBURUAK

Lehen azaldutako helburu nagusiaz gainera, gurasoen eskolak honako hiru helburu hauek ere baditu:

### 2.1. Seme-alabak ezagutzea

Ezagutza integralaz ari gara: haurren emozioak, sentimenduak, edonolako estimuluen aurrean dituzten erantzunak, euren jakinmin asezi-

na... Gurasoek seme-alaben garapenaldiak hobeto ulertzea da kontua. Zenbat eta gehiago ezagutu seme-alaba, hainbat eta gehiago maitatzen da.

### 2.2. Haurraren garapen integralean laguntzea

Haurren lehen hezitzaileak gurasoak dira. Eta eginkizun horretan ez daukate ordezkorik. Haurrak haur eskolara bidaltzeak ez du esan nahi gurasoek erantzunkizun hori saihestu egiten dutenik. Gurasoen presentzia efektibo eta afektiboa da haurrek gauzak ikasteko estimulurik handiena.

Gurasoen eginkizuna heziketa estimulatzaile baten bidez bete behar da eta heziketa horrek lau arlo hauek hartzen ditu:

- Arlo motorea.
- Sentimen-ezagutzen arloa.
- Hizkuntzaren arloa.
- Arlo psikosoziala.

### 2.3. Gurasoak, helburu erreferentzialak

Zenbat eta aberatsagoa den haurraren inguru estimulatzailea, hainbat eta handiagoa da bere garapena. Badakigu haurraren garapen psikologikoak zera behar duela:

- maitasunezko harremana
- pertsona helduekin lotura afektiboa sortzen duena
- harreman iraunkor eta estimulatzaile batean.

Guraso izateak oreka bat eskatzen du, bai gizabanakoarengan eta bai bikotean. Seme-alabentzat euren burua begiratzeko ispilua dira gurasoak. Berrikusi egin behar da «ispilu» horien kalitatea.

## 3. METODOLOGIA

Hiru helburu horiek lortzeko, honako bitarteko hauek dauzkagu:

### 3.1. Haurra ezagutzea

Hamabostero (aste batean bai eta hurrengoan ez) gurasoei fitxa bana ematen diegu. Bertan haurraren lehenengo urteetako garapenerako garrantzitsuenentzat jotzen ditugun gaiak jorratzen ditugu. Hona hemen fitxa horietako batzuren izenburuak:

Haurrak jolasaren bidez ikasten du.
Haserrealdiak dituenean...
Beldurra eragiten duen EZETZA.
...

Eta halaxe jarraitzen dugu gurasoek haurren jokabidea hobeto ulertu dezaten prestaturiko HAMASEI fitxak eman arte.

### 3.2. Haurraren garapen integralean laguntzea

Helburu hau lortzeko beste HAMASEI fitxa banatzen ditugu, hauek ere hamabostero, aurreko fitxa ematen ez dugun astean. Fitxa hauek gurasoek lehen aipatutako lau arloak landu eta haurraren jokaera eta erantzunak ebaluatu ditzaten dira. Hauexek dira:

Haurrak bere gorputza ezagutu eta kontrolatzea.
Pertsona eta objetuen aurkikuntza erraztea.
Begien eta eskuen arteko koordinazio ona lortzea.

Sentimenen eraginkortasunaz jabetzea.
Oinarrizko egitura espazialak ezagutzea.

Gai guzti hauek geroko irakurketa eta idazketaren ikaskuntzan oinarri-oinarrizkoak izango dira.

### 3.3. Gurasoak, lehen helburu erreferentzialak

Hiru asterik behin, batzar bat egiten dugu gurasoekin, funtsean, eurei buruz -pertsona eta bikote gisa- gogoeta egiteko izaten dena. Kontua ez da izaten berebiziko gairen baten azalpena egitea, partea hartzea bultzatuz, norbere buruaz gogoeta egiteko dinamika bat sortzea baizik.

Oinarrizko erizpide hau hartzen dugu abiapuntutzat: *heztea ez da beti bete-betean asmatzea, ahalik eta gutxien hutsegitea baizik.*

## 4. AZKEN GOGOETA

Hezitzaile talde bezala, lehentasun hauxe jarri genuen: funtsezkoa da familiaren eta haur eskolaren arteko harreman zuzen eta jarraia sortzea. Horrexegatik sortu zen gurasoen eskola gure haur eskolan.

Gai horretan teknikoa den baten laguntzak eta urteen joanak aldatu eta hobetu egin dute guraso eskolako jarduna. Hasieran, normala den bezala, nondik nora jo ere ez genekien arren, denboraren joanak metodologia zehatz batera bideratu ditu



*Helen Oxenbury. Ayudando. Ed. Juventud*

# ESKOLA ETA FAMILIAREN ARTEKO HARREMANA

*Izaskun Madariaga Iragorri. Oiartzungo Iturburu Udal Haur-eskola*

Gurasoen eta eskolaren arteko harremana eskolako hezkuntz eginkizunetako bat dela jotzen dute profesionalek eta baita Hezkuntz Administrazioak berak ere (begiratu LOGSE, Oinarrizko Curri-kulumaren Diseinua eta abar). Hargatik, eta gai hau ez delako batere berria, zail samarra egingo zait bion arteko *elkarrizketa, hartu-emana, elkarlana* edo dena delakoa (gure lanean familia kontuan hartzeko dugun behar hori) zergatik eta nola antolatu behar den azaltzea eta gauza orijinalen bat esatea.

Honelako planteamenduetan oso errotuta dago hezkuntz errentabilitatearen kontzeptua, hau da, harreman hori haurraren emaitza akademiko-hezkuntzazkoak hobetzen dituen mekanismotzat erabili daitekeela.

Haur Eskolatik -eta batez ere bertako lehen ziklotik- eskola eta familia batzeko asmo hau derrigorrezko gauzatzat jotzen da hezkuntzaren arloko helburuak lortzeko, haur txikiaren errealitateak berez dakarren ezaugarri bat delako.

Hezkuntzaren ideia, etapa horretan, beste edozeinetan baino argiago lotzen zaio giza garapenari, gaitasunen heltzeari, baloreak, jokabideak, giza estrategien ikaskuntza eta abar norbereganatzeari... Haurrak guzti hori egunero-egunero bereganatzen du berarekin bizi diren pertsonen kausaz, gizakiz inguratuta dagoelako (gurasoak, irakasleak, neba-arrebak, lagunak eta adiskideak. Hala, bada, kontua ez da familiak bere eginkizunak eskolari uztea, ez bailuke emaitza onik ekarriko. Kontua, eginkizun horiek, ondo betetzeko, denok batera lan egitea da.

Hargatik, ikuspuntu hori kontuan hartuta, ezin dugu haurraren unibertsoa hezkuntz unetan eta bestelakotan erdibitu, eskolan dagoen ala ez kontuan hartuta. Argi dago, beraz, eskolak atea ireki behar diola familiari.

Orain arte esandakoa bat dator hasieran planteatzen nuenarekin, hau da, hezkuntzaren ikuspuntutik errentagarria dela familiak parte hartzeko bide hori irekita edukitzea. Baina nik artikulu honetan, nolabait, alde batera utzi nahi nuke ideia hori, nire ustez nahikoa argi agertzen baita hezitzaile artean; hala, bada, giza-harremanen ikuspegitik hori baino gogobetegarriagoa den planteamendu bat nabarmendu nahi nuke.

0-3 urtekoen haur eskola eta beste eskola -formala- bereizten dituen ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, gure ardurapean dauden haur txikien familiekin erlazionatzeko dugun modua da. Harreman estua izateko premia horren kausaz, guk, profesionalok, elkarrekin jardutea oso aberasgarria dela ulertu dugu, hezkuntzak dakarren poza

konpartitzeko aukera ematen baitu elkarlan horrek. Horregatik, «gurasoak, zenbat eta urrunago hobe» edo «gurasoak ezin dira kontuan hartu» eta antzerako gauzak entzuten direnean, zertxobait harrituta geratzen gara. Nire esperientziak guztiz kontrakoa pentsarazten dit eta horrexegatik idatzi behar dut idatzi behar dudana.

Aitortu behar gut zenbaitetan gurasoek oztopatu eta nahastu egiten dutela lagundu baino gehiago, baina kasu bakan batzuk izaten dira eta horrek ez du arrazoitzen guztiengandik, sistematikoki, urrundu beharra. Hargatik, familiei harrera ona egiten eta eskolako konbibentziaz maila guztietan gozatu dezaten ahalegintzen gara.

Hori nola lortzen den? besterik gabe batzarrak eginda, ez, jakina. Parte hartzeko behar diren bitartekoak jartzeak berez ez dakar eskolaren eta familiaren arteko uztarketarik, hori argi eta garbi dago. Kontua, funtsean, jokabidea da, «profesional» bezala parte hartu beharrean, pertsonekin bizi diren pertsona bezala jardutea, sermoia bota beharrean, eurekin hartu-emana izatea.

Kontua, lehenengo eta behin, zera da, eskolaz gozatu behar dugun guztion bilgune, eta elkarlan eta elkarbizitzarako lekua izan dadila eskola; eskola nahitaez zapaldu behar den leku horietako bat dela sentitzea, bertako sentitzea gure seme-alaben bitartez.

Kontua haur-ikasleen hezkuntzaren eskumenen mugak haustea da. Gurasoek gauza batzuk dakizkite, irakasleok beste batzuk dakizkigu, eta batak bestearen beharra dugu, ez dago inongo misteriorik.

Kontua da ez dugula haurren maitasunagatik lehian aritu beharrik, irakasle batek ere ez duela



amarekiko edo aitarekiko maitasuna ordezkatu behar, bi maitasunak desberdinak direla eta bien beharra dagoela.

Lehia sentimendu hori gainditzeak konfidantza giroa sortzen laguntzen du, gero harremana ere aurrez aurre dauden birena izan dadin. Honi beste zutabea jartzen badiogu (hau da, gurasoek garantia osoa izan behar dute jakin behar luketen guztiaren berri izango dutela beti) orduan konfidantza ezezik lasaitasuna ere lortuko dugu. Adibide bat jarriko dugu: zenbat hasierako estutasun lasaitu dira amei goiz erdian euren semea edo alaba nola dagoen jakiteko deitzen utzita?

Eskolaren egiturak eta antolakundeak ahalbideratu egin behar ditu familiarekiko harremanak, ez era formal batean bakarrik (agiri arteeko batzar antolatuen bidez), baita era espontaneo batean ere, eskolan sartzen, irakaslearekin hitzegiten, familia artean adiskidetasuna sortzen, afariak antolatzen... utziz. Familia handi bat den sentzazioa sortzeko aukera eman dadila (ziurraski, familia handi eta eskola txikiaren artean harreman zuzena dago).

Era honetan, haurtxoak antzeman dezake familiaren eta eskolaren arteko uztarketa eta era honetan eskola familiaren luzapen edo hedapentzat hartzen du. Jaiotzatik bertatik adiskideekin bizitzearen kausaz, sortzen den harremana anaitasun antzekoa izan ohi da.

Hala jokatu ezkero, erabakitzen dugun edozertarako hartu ditzakegu kontuan gurasoak: proiektu konkretuak abian jartzeko (hala nola, tailerrak, irteerak, materialen edo gelen prestaketak)... eskolaren ibilbidean parte hartu dezaten, haren konnotazio sozialetan, hobekuntzan, hezkuntzako helburuak lortzeko orduan... euren seme-alaben egoeraz arduratzeko, hezkuntza arloko euren maila kulturala aberasteko, seme-alabei buruz dituzten ezagutzak ugaritzeko... edozertarako.

Eta guraso guztiekin lortzen da hori? Ba, ez. Baina bai askorekin eta horixe da ardura duena: sortzen den elkarlanerako jokabidea eta parte hartzeko joera. Joera hori geroko hezkuntza etapetan beste ikastetxe batzuetara iristen da. Eta horixe da garrantzitsuena.

Lan hau amaitzeko, ez ditut azalduko parte hartzeko erabiltzen ditugun bideak, ziurraski beste ikastetxe batzuetan erabiltzen direnen antzekoak izango baitira eta ez baitute interes handirik izango. Beraz, ondorio gisa, honako hauek nabarmendu nahi nituzke:

* Eskola eta familia haurraren bizitzako urrats asko elkarrekin egin ditzaketen bi erakunde dira.

* Bien arteko elkarlaguntza eskolatik bertatik diseinatu behar da.

* Diseinu horretan garrantzitsuagoa da hezitzaile taldearen jokabidea diseinuan igarotako ordu kopurua baino.

* Emaitza ona izateko, jokabide horrek eskolaren «bokazioa» deritzon osagaia behar du. Hau da, jokabidea ezin da irakasle bakoitzaren borondatearen esku utzi. Edo denok sinesten dugu edo ez du balio (ohiturak, esperientziak eta prestaketak zeresan handia dute gai honetan).

* Giro honetan hezitako ama eta aitek gozatu egiten dute eskolari lagunduz eta bertan parte hartuz eta, aldi berean, eurekin elkarlanean dihardugunean, iralasleoi ere gozarazi egiten digute.

# GURASO ESKOLA

## ANAITASUNA IKASTOLA (ERMUA)

*Iñaki Osoro*

## HELBURUAK

Ikastolako hezkuntza proiektua lantzerakoan, argi ikusi da honen gauzapena Ikastolako hezkuntza komunitate osoaren zeregina dela, alegia guraso, ikasle eta irakasleen arteko elkarlanean koherentzia lortu eta bideratu behar dela, nahiz eta bakoitzak bere eremuan bere ardurak bereganatu behar dituen. ikuspegi honetatik abiatuz, Ikastolako lana eta gurasoen lana ildo beretik lantzea interesgarria zela ikusi zen eta horretarako "Guraso eskola" tresna egokitzat jo genuen, hasierako esperientzian beheko mailetako gurasoetara mugatuz, jarraian Ikastola osora zabaltzeko asmoz. Hona hemen guraso eskola honen helbururik azpimarragarrienak:

- Adin hauetako seme-alaben jarrera eta portaerak aztertzea.
- Ikastolaren eta gurasoen arteko komunikaziorako bide berria irekitzea.
- Ikastolaren eta gurasoen lana era bateratuagoan egiteko bideak urratzen jarraitzea.



*Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/las más pequeños/as"*

## PROIEKTUAREN LABURPENA

Hasierako esperientzia honetan, eskaintza hau ez da ikastolako guraso guztientzat zabaldu, bigarren mailatik beherako gurasoei bakarrik eskaini baitzaie. honetarako izan ditugun arrazoiak hauexek izan dira:

- Gaiak adin bati egokitzean, bakoitzaren interes eta problematikara iristea errazago geratuko zitzaigula.
- Azpiegituren aldetik guztiei erantzuteko aukerarik ez genuela.
- Multzo txikiagoa izatean, hasieran lana hobeto egiteko aukera zegoela, alegia, prozesua errazago bideratu daitekeela.

Erraztasun eta aukerak modu egokian eskaintzea komenigarria ikusten zenez, aspektu ezberdin guztietan gure aldetik zeuden ahalegin guztiak egin ditugu, ama eta aita guztiei bideak irekitzen, hala nola:

## ANTOLAKETA

- ORDUTEGIA:

a. Arratsaldean, haurrak eskolan daudenean, alegia, ordu bi t'erdietatik 4etara. (Talde honetan parte hartzen duen %99a emakumeak dira).

b. Gauean, 7etatik 8'30etara, arratsaldeko orduetan ezin dutenentzat. (Talde honetan emakume eta gizonezkoen portzentaia berdina da).

- ASTEKO EGUNA:

Gaueko ordutegian, astean egun bakarreko aukera dute ez baitzegoen talde bat baino gehiago osatzeko adinako guraso kopururik; arratsaldeko aukeran, aldiz, hiru talde osatzeko aukera genuenez, beraiek aukeratu dute zein egun komeni zaion bakoitzari.

Erizpide honetaz gain, ikastolako haur-gela bakoitzeko gurasoak talde berberean kokatzen saiatu gara; beti ere komunikazio helburua erraztuko dela pentsatuz.



*Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/las más pequeños/as"*

Aukeratutako egunak:
Arratsaldez: astelehena, asteartea, asteazkena; egun bakoitzean talde bat.
Gauez: asteartea.

## SAIOEN ANTOLAKETA

Talde bakoitzak astean saio bat edukitzen du. Saio Hauek programatzerakoan egutegi lasaia egiten saiatu gara, alegia, Gabon aurreko asteetan saiorik ez, gurasoek (batez ere amek) beste zeregin batzuk izaten dituztelako; aratuste edo inauteri inguruan ere ez, ezta maiatzaren erditik aurrera ere, eguzkiak berotu egiten baitu.

Guztira 16 sesio antolatu dira:
- Gabonak aurretik bost.
- Gabonak eta Aste Santu bitartean zazpi.
- Aste Santutik aurrera lau.

* Erdian eta bukaeran bi momentu berezi antolatu dira, guzti honen martxa ebaluatzeko.

## SESIOAK ETA GAIAK

Gaiak eta sesioak antolatzerakoan, lehenengo eta behin, tenporalizazio posible bat programatzen saiatu gara, bide honetatik, gurasoen errealitatera ahalik eta gehien hurbilduz, alegia, beraien lanak eta premiak kontutan hartuz (ez baita berdina ostiral edo asteazken arratsalde batean egin behar den lana, ezta Gabon aurreko astean edo martxoko edozein astetan egin behar dena ere.

Guzti hau kontutan hartuz, 16 sesio programatzea erabaki da, ahalik eta modu egokienean banatuta: Gabonak baino lehenago bost, Gabonak eta Aste Santu bitartean zazpi eta Aste Santutik aurrera lau.



*Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/las más pequeños/as"*

Era honetan gurasoen larritasunak murrizten saiatuko gara, ez daitezen inolaz ere itota sentitu, egutegiari gehiegi lotzen zaizkiolako, edota ezin direlako iritsi.

Ikuspegi tenporal honetaz gain, apunteak hartu, ikasi... edo antzeko lanak ia erabat baztertu dira, askorentzat oso lan zaila bihurtuko bailitzateke; ez da ahaztu behar, era guztietako gurasoak direla eskola honetako partaide, talde batean goi mailako ikasketak egin dituen bat eta ia idazten ez dakien bat ere elkartu daitezkeelarik.

Beraien kezkak eta aportazioak jasotzea garrantzitsua denez, beren hitza eta kezkak batzeko momentuak zabalak dira; alegia dinamika aktiboa eramaten saiatzen gara. Honetarako adibide errazenetatik abiatzen gara eta beraien ondorioak, irakaslearen ondorioak kontutan izanik pare bat orritan konklusioak plasmatzen dira, guraso bakoitzak gordetzeko.

- GAIAK:

- Komunikazioa eta elkarrizketa
- Autoestima
- Aisialdia
- Jolasa eta jostailuak
- Erantzukizuna
- Disziplina
- Lanak ondo egiteko motibazioa
- Portaera aldaketak
- Ikasteko ohiturak
- Sexualitatea
- Dieta

Gaiak aztertzerakoan argi izan dugu, aurretik aipatutako guraso mota bien problematika berdina izan daitekeela, eta biek ere partaide aktiboak izan behar dutela klaseko dinamikan; beraz, eguneroko problematikara hausnarketa eta azterketa ekartzea da helburu garrantzitsuena. Hausnarketari eta denon arteko elkarrizketari garrantzi handia eskaintzen zaio, garbi utzi baitugu hasiera hasieratik hemen ez dugula soluzio magikorik, eta beti ere



***Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/las más pequeños/as"***

denon arteko errealitateen kontrasteak asko laguntzen duela bakoitzaren jarrerak aztertzeko.

Ikuspegi honen barnean, hausnarketarako gai hauek txertatzen saiatu gara: komunikazioa eta elkarrizketa, autoestima, aisialdia, jolasa eta jostailuak, erantzukizuna, disziplina, lanak ondo egiteko motibazioa, portaera aldaketak, ikasteko ohiturak, sexualitatea eta dieta.

Beraz, gure hausnarketen gunea gai horiexek izan dira, baina eguneroko bizitzatik abiatuz eta ez horrenbeste liburuetatik.

Gai hauen artean, ebaluaziorako bi momentu berezi txertatu ditugu bat otsailean eta bestea, oraintxe, kurtso bukaeran.

## BALORAZIOA

Oraindik behin-behineko balorazioa baino egin ez badugu ere, hasiera batean oso positiboa da, lortu baita:

- Partadietza zabala
- Beraien seme-alaben problematika aztertzea.
- ikastolako hezkuntza proiektuan plasmatutako zenbait ezaugarri era sakonean aztertzea orain arte iristen ez genuen foro zabalago batean.

Azken ebaluazioa eta datorren kurtsorako iritzi eta aportazioak kurtso bukaeran gauzatuko den sesio berezi batean egiten saiatuko gara. Ez da, inondik inora ere, zalantzan jartzen datorren kurtsoan proiektuarekin jarraitzea.

## KOSTUAK

Jakina da Gurasoen Eskola honek diru kostua duela; ikastolako ekintzatzat jo dugu, eta beste ekintzei ematen zaien tratamendu bera eman diegu. Ikuspegi hau izatean, ikastola honetako Gurasoen Elkarteak eskolaz kanpoko ekintza guzti hauetarako, hileroko kuota bat duaka; beraz, guraso guztiek ordaintzen duten kuota honetaz baliatu gara, eskola hau martxan jartzeko.

Elkartearen diru honetaz gain, Udalak ere eskaini digu dirulaguntza txikitxo bat, horrelako proiektu bat martxan jarri duten beste eskolei eskaini dien bezala.

Hau da, kirola, antzerkia, irteerak, udalekuak eta beste hainbat ekintza bezala, Ikastolako benetako proiektutzat hartu dugu.



*Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/as más pequeños/as"*

# GURASO ESKOLA SAN VIATOR IKASTOLAN

*Goio Eskibel. San Viatorreko Guraso Eskola*

San Viator ikastolak 16 urte daramatza Guraso Eskolako taldeekin. Lehen deialdia egin zenean, San Viator Ikastetxeko ikasleen guraso talde bat sortu zen, hamar senar-emaztek osaturikoa, eta horrelaxe jarri zen martxan heziketa mugimendu hau.

Lehen talde honetako partaideak aldatzen joan ziren eta une honetan taldea hasierako eta berriak diren bikotez osatuta dago.

1992-93 ikasturtean beste talde bat osatu zen San Viator Ikastolan, hau ere hamar senar-emazterekin.

Oraingoz bada, San Viator Ikastolan, Guraso Eskolako bi taldek funtzionatzen dute.

Taldeen helburuak:

* senar-emazte eta guraso/seme-alaben arteko harremanak analizatzea.



***Ministerio de Asuntos Sociales. "Los/las más pequeños/as"***

* familia barneko arazoak komentatzea.
* egoera larriei erantzutea eta irteera egokiak bilatzea.
* ikastolako gaiak eztabaidatzea.
* seme-alaben ikasketak eta merezi dituzten sari edo ta zigorrak argitzea.
* fede katolikoa eta gizartean nolakoa izan behar duen kristau baten jokaerak ikustea.

Talde bakoitza astean behin elkartzen da ordubeteko bileran eta horrelaxe segitzen du ikasturtean zehar oporretan izan ezik.

Gaiak denon artean aztertzen dira Goio Eskibelek, taldeen arduraduna denak, aurkeztu ondoren.

Hiruhilekoa bukatzean, nahi dutenek, prestatutako elizkizunetan hartzen dute parte eta ikasturte bukaeran familia guztiekin irteera edo eskursioa antolatzen da.

Taldeak zabalak dira eta nahi duten guztiek har dezakete parte bai funtzionatzen duten taldeetan sartuz, bai beste talde berri bat sortuz.

Talde hauek eragin handia dute bai ikastolaren martxan, bai eta, batez ere beraien familietan, aztertzen diren gaiak aplikatuz.

Era berean, esan beharra dago, askotan, tratatzen den gaiak berak baino askoz ere aberastasun handiagoa duela elkarren artean sortzen den komunikazioak eta bakoitzaren esperientzia kontrajartzeak.

Guraso Eskolako bi talde hauek herriaren aldeko ekintza batzuetan ere hartu dute parte hainbat aldiz. Hona heman, laburki esanda, taldeek aurrera eraman dituzten ekintzak:



*C. Dolto-Tolitch. "Un bebé en casa". Ed. Didascalia*

* Monitore lana eginez, klasetik kanpoko Ikastolako gazte taldeetan parte hartzea.
* Parrokiako katekesi taldeetan monitore lana egitea.
* Herriko Gabonetako Erregeen Kabalgatako jantziak prestatu, moldatu eta jantzigintza zuzentzea.
* Gabonetan Bosnia Hertzegovinaren aldeko janaria eta arropa biltzeko kanpaina zuzentzea.
* Udaletxeak Arrasaten drogamenpetasunen aurrezaintza eta argibiderako duen zerbitzuaren lankideak izan.
* Munduan Ipar eta Hegoaldearen arteko ezberdintasun ekonomikoari buruz, aberastasunaren eta pobreziaren arteko amildegiari buruz, alegia, Arrasateko herria kontzientziatzea eta Monterronen hitzaldia antolatzea.

**LOS/LAS MAS PEQUEÑOS/AS**
**Cómo ayudarlos a crecer**
**Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid 1993**



*Bideo bat osagarri daraman liburuxka hau gogoeta eragiten duen materiala da, haur txikiekiko ditugun harremanetan hainbat eginkizunetarako edo ekintza praktikotarako orientazio politak ematen dituena.*

*Oso material atsegina eta guraso edota irakasle bileretan oso erabilgarria.*



# las más pequeñas

## Cómo ayudarlos a crecer



MINISTERIO DE ASUNTOS SOCIALES

Dirección General de
Protección Jurídica del Menor

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte – IRAKASLE ESKOLA – Eskoriatza




EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION